

Zôon-aren esparrua: Gizaberea saroi publiko aldakorrean

Ane Larrinaga Renteria
EHUko irakaslea

Gizarte-zientziek errealitate soziala historizatzeko balio behar dute, baita errealitatea ikertzeko erabiltzen diren kontzeptuei azterketa erreflexiboa aplikatzeko ere. Era horretako ariketaren helburua, aldi berean, errealitate sozialean eta pentsamenduaren munduan gordetzen diren joera naturalistak agerian uztea da. Abiapuntuok hartuta, artikulua asmoa publikotasunaren kontzeptuak pentsamendu politikoaren barnean dauzkan adiera eta konnotazioen berrikusketa egitea da, gogoetan aintzat hartuz horietako bakoitzaren inplikazioak eta mugak.

The social sciences must contribute to situating social reality in its historical context and, in a reflexive way, the same analysis must be applied to the concepts that are used to apprehend it. Only in this way is it possible to uncover the naturalist tendencies that are concealed both in social reality and in the world of thought. On the basis of these considerations, the aim of this article is to review the meanings and connotations held by the concept of the public space of society, bearing in mind the implication and limits of each conception.

1. Sarrera

1.1. Esparru publikoaren kontzeptua aro postsozialistako agenda teorikoetan

Unibertso intelektualean, ziklikoki, gertakari historikoek hausnarketa teorikoaren oinarriak astintzen dituzte, ezagutza-interesak eta kontzeptu-agendak aldaraziz. Azken hamarraldi bietan, Europako erregimen sozialisten kolapsoa era horretako aldaketa-gako bat bihurtu zaigu pentsamendu politikoaren arloan. Sozialismo “errealaren” gainbeherakadak, besteak beste, lagungarri izan du ekialdeko herrialdeetan demokratizazioa eta parte-hartzea eskatu duten gizarte mugimenduen garapena, alegia, herrialde horietako gizartegune publikoen pizkundera. Gertakari horien kariatara, gogoetagine berriak ireki dira mundu akademikoan —zehazteko, mundu horretan nagusi diren eragileen artean—, eta ahaztuta edo baztertuta zeuden kontzeptuak eguneratu dira, hala nola gizarte zibila, esparru publikoa eta kultura politikoa, beraiei esanahi berriak erantsiz. Hein batean, hortik dator, esate baterako, Habermas-ek esparru publikoari buruz aspaldi egindako lehen lanak 90eko hamarraldian izan duen oihartzuna, bereziki ingeles-eledun munduan¹. Ez da harriztekoa. Itxuraz, esparru publikoaren kontzeptuak ahalmen kontzeptual oparoak eskaintzen ditu, hain zuzen, arretagunea estatu hertsatzaitetik eta merkatutik at dagoen bizitza sozialaren eta elkarte librearen eremuan, hots, gizarte zibilaren gunean jartzen duelako.

Urteotan hiztegi berria eta kontzeptu-sorta berria garatzen ari zaigu, bada, pentsamendu politikoaren arloan. Izan ere, “Hirugarren Esparruari” zegozkion gaiak —gizarte zibilarena edo esparru publikoarena, baina baita hiritarren partaidetzarena ere— saihestuta egon dira soziologia politiko modernoaren diskurtsoan eta diziplinak zerabiltzan kategorien artean, hain zuzen esparru politikoan demokrazia elitista eta ordezkatzaila eredu normatibo nagusia izan den bitartean. Hartara, oraintsu arte, mundu modernoaren eraketa soziala bi nukleoren inguruan mamitu delako ustea oso sustraiturik egon da politikaren arloan; Estatuak eta merkatu-ekonomia gune nagusitzat hartu dira eraketa klasiko horretan. Estatuak eta Merkatuak ordeztu dituzte elkar-baztertzaila gisa irudikatu diren eremu kontzeptualak, hala publikotasunarena nola pribatutasunarena; azken horiek luzaroan osatu dute soziologia politikoaren eta zientzia politikoaren dikotomia eztabaidaezina (Somers, 1997b), oinarritzakoa. Gizartea, aldiz, dikotomia nagusiaren aurrean, hondar-esparrua besterik ez da izan ikuskera politiko tradizionalen, Estatuak eta Merkatuaren artean nonbait kokaturik eta haien logikara makurturik zegoen *topos* bat. Hori dela eta, esparru publikoaren egungo azterketa eta, oro har, gizarteari buruzko interesa, Estatuak eta gizartea eta Estatuak eta Merkatuaren arteko harreman aldakorren testuinguruan kokatu behar da; areago, esparru politikoaren beraren muga lekualdatzearen kontestuan.

1. Habermas-ek 1962. urtean argitaratu zuen *Strukturwandel der Öffentlichkeit Untersuchungen zu einer Kategorie der bürgerlichen Gesellschaft* (gaztelaniara 1981ean *Historia y Crítica de la Opinión Pública. La Transformación Estructural de la Vida Pública* izenburupean itzuli zena). Ingelesezkotz izulpena, hala ere, ez zen 1989 urtera arte azaldu. Ingeles bertsioak izan zuen oihartzuna, hortaz, ezin da ulertu uneko testuinguru politikoak aintzat ez bada hartzen, bereziki, Europako ekialdeko gertakariak pentsamendu politikoaren baitan sortu zituzten arretagune berriak gogoan izan gabe.

Ildo berari jarraiki, bigarren gertakari batek ere zeharkatu du diziplina teorikoen interesen geruza. XX. mendearen azken laurdenak dakarren Ongizate-Estatuaren krisia dugu jazoera garrantzitsu hori. Lehenago ere, estatu liberaletik estatu sozialerako bilakaerak hankaz gora jarri zituen gizarte zibila eta Estatuaren artean liberalismoak eraikitako muga idealak. Izatez, Ongizate-Estatuak, bere garapenean, aurretik pribatutzat hartzen ziren eremuetara zabaldu zituen bere funtzioak, politikagintza eta ekonomia nahasiz. Estatu keynesiarraren oraintsuko krisiaren aurrean, atzera ere, Estatuak jadanik erregulatu ezin dituen merkatu kapitalisten globalizazioaren ariaz, gogoetagine berriak sortu dira politikaren arloan. Gaur egun sistema politikoaren eta ekonomiaren berregituraketaren testuinguruan proposamen neoliberalak eta “sozialak” agertzen dira lehian, nabarmen geratu baita ez Estatuak eta ez Merkatua ez direla erregulazio soziala gauzatzeko gai. Hortik datoz “Hirugarren Esparruaren” inguruan egin diren hainbat hausnarketa. Ongizate-Estatuaren gaineko auzian, pribatutasuna eta publikotasuna ostera ere eztabaidagai bihurtu dira pentsamendu politikoan, xede publikoa duten eragile politiko pribatuak garatu baitira gizarte postkeynesiarrean. Eragile horien gainean eratu dira hiritarren egintza-mota berriak, baita zerbitzu eta ardura publikoen kudeaketa-eredu berriak ere. Batzuen aburuz, Estatuaren eredu burokratikoaren eta merkatu-ekonomiaren ezintasunak ez estatala ezta pribatua den eremu batean gauzatzeko egintzek gainditu behar dituzte. Ikusker horretan, Hirugarren Esparrua, esparru publiko ez-estatal gisa eratzen da, demokrazia parte-hartzailearen eremu bezala, aldi berean funtzio ekonomikoak —ongizatearen hornikuntza— eta kontrol politikoak elkartzeko dituen (Bresser, Cunill, 1998; Lander, 1998) eta hiritartasuna bere dimentsio material zein politikoan eraikitzeko balio duena.

Gertakari horiek aitzakia harturik sortu diren gogoetetan antzematen dira, zeharka baino ez bada ere, mendebaldeko esparru politiko garaikideetan burutu diren eraldaketan zantzuak. Halatan, merkatuek estatu-eremuak gainditu dituzte. Ekonomiaren globalizazioak kontrol sozialetik eta politikotik kanpo utzi du kapitalismo garaile eta ahalguztiduna. Gizarteak, bereziki sektorerik ahulenak, babes-tresnarik gabe geratu dira: gero eta gehiago, politikagintza gizartetik urrundutako jarduera antzera hautematen da. Aldi berean, politika eta gizarte arloko proiektu utopikoak —emantzipazio-kontakizunak, gaur egun erabiltzen den hizkeran— desagertu egin dira apurka-apurka industri-gizartearen eredu klasikoarekin batera. Nondik abiatu, bada, askatasun saio berrien eraikuntza?

1.2. Gizarte zibilaren eta publikotasunaren mitifikazioa pentsamendu politikoan

Gure aro postsozialistan gizarte zibila bihurtu da, zalantzarik gabe, politikaren eta utopiaren berreraikuntzaren bidean egiten diren ahalegin praktikoen zein hausnarketa teorikoen arretagine nagusia. Ondorioz, hiritartasuna eta partaidetza publikoaren eremuan biltzen dira gaur egun ezagutza-interes garrantzitsuak mundu intelektualean. Hartara, pentsamendu kritikaren interes teorikoetako bat, gaur, gizarte zibilaren eta berorren ahalmen eraldatzaileen azterketan kokatzen da eta, mundu teorikotik at ere, eremu publiko-politiko horretan jartzen dituzte zenbaitek sistema politikoaren aldaketaren itxaropenak. Klase-politikaren krisia bide dela, demokrazia erradikalizatzearen alde dauden indarrak antolatzeke asmoz, identifikazio berrien bilaketan murgildurik daude eragile politiko eta intelektual aurrerakoiak.

Demokrazia ordezkatzaitetik harago joanez, hiritartasun eraberrituaren nortasunak eraikitzeko diskurtsoetan, partaidetza bilakatu da elementurik funtsezkoena, baliorik aldarrikatuen. Horren guztiaren eraginez, gizarte zibilaren esparru publikoa lehenago sistema politikora murriztuta zeuden egintza politikoen berezko gune bihurtuta aurkitzen dugu, eta bertan diharduten gizarte-mugimenduak, elkarteak eta era guztietako hiritar-ekimenak, aldaketa eta elkartasun-proiektuen eramaile gisa sagaratuak.

Azken urteetan gizarte zibilari eta publikotasunari buruz garatu diren formula-zioetan —bereziki, eragin handia izan duen Jean Cohen eta Andrew Arato-ren testuan²— kontzeptuon ahalmenetan sakondu gura izan da, sozialismoaren osteko demokraziaren gehikuntzaren desafioari aurre egiteko bideak urratzeko asmoz. Hala ere, teoria kritikoaren baitan egin diren azterketak, sozialismoaren krisiak eta ekialdeko estatuaren autoritarismoaren esperientziak neurritz gain baldintzaturik sortu direlakoan gaude. Eragin horren ondorioz, gizarte zibilean eta esparru publikoan garaturiko egintzari, era abstraktuan, logika autonomoaren ideia egotzi zaio behin baino gehiagotan, esparru sozial publikoa askatasunaren eta elkartasunaren gune berezkoa balitz bezala. Sarritan, botere- eta merkatu-harremanen naturalizatorako joera ere sumatzen da horrelako ikuspegieta, gizartearen demokrazia, partaidetza eta elkartasunaren aldeko gaitasunek, bere-berezkoak izanik, mundu soziala esparru ekonomikoa eta politikoa hertsapenetatik babesturik mantenduko balute bezala. Horrela, “gizarte zibila”, “esparru publikoa”, “Hirugarren Esparrua”, “esparru publiko ez-estatala” eta antzeko kontzeptuak parte-hartze politiko zuzenaren ideari lotzen zaizkio, ñabardurarik gabe, gure gizarteko hizkera eta ezagutzaren arruntean. Kontzeptu horiek adierazten duten gune soziala, ikuspegi mitifikatu horretan, mobilizazio kolektiboarena da, gizarte-mugimendu aurrerakoiarena, elkar-teena eta sare informalena, elkartasun komunitarioena, azken finean, hiritargo parte-hartzailearen eta demokrazia parte-hartzailearen esparrua, ez besterik.

Haatik, sarritan funtsezko gauza bi ahazten dira ikuspegiotan. Bata, esparru publiko zibilak ez daukala benetan bere irudikapen idealetan agertzen duen barne-homogeneotasunik; aitzitik, esparru konplexua da, ez dauka ezinbestean aho batez egindako adierazpenik eta ez du osatzen bateratuta diharduen gorputzik. Bestea, botere-harremanek eta gatazkek zeharkatzen duten esparrua dela. Gure ustetan, badaude egon bere baitan demokraziaren eta partaidetzaren aldeko indar sozialak, elkartasunaren eta eztabaida berdintzalearen aldekoak ere bai, baina baita horien aurkakoak ere. Beste hitz batzuekin esanda, esparru publikoa komunikazioa, elkarriketa, partaidetza berdintzalea eta elkartasunaren balioen edukiontzi izateaz gain, borroka sinbolikoen agertoki ere bada, hots, interpretazio legitimoak ezartzeko lehiagune bat, inklusio eta esklusioaren esparrua, hegemonia eraikitzeko gudu-eremua. Esparru publikoaren kontzeptua esperientzia horien guztien bilgune bilakatzen da. Eta ez dirudi azterketa egokia aldebarreko ikuspegia eskaintzen duena izan daitekeenik.

Bestalde, ez dago horretan zalantzarik, esparru publikoaren kontzeptua, irakurketa idealizatuak saihestuz, oparoa gerta daiteke gaur egungo errealitate politikoa gorabeherak ulertzeko. Ez da fenomeno politiko berriak aztertzeko

2. Ikus J. Cohen eta A. Arato (2000).

bide bakarra, noski, esparru politikoak jazotako eraldaketa bakoitzak dimentsio asko baitauka gogoeta teorikoa elikatzeko; ildo horretatik, inoiz ezin izan da dimentsio bakarreko azterketara murriztu ikuspegi askotatik azter daitekeen gizartearen konplexutasuna. Baina, esparru publikoa abiapuntu eta baliabide kontzeptual interresgarria izan daiteke, gaur egungo mundu politikoa irakurtzeko perspektiba ezin hobea eskain diezagukeena.

Lehenago aipatu diren sinplifikazioetatik ihes eginda ere, esparru publikoaren azterketa egitea ez da ataza sinplea, mugaketa handia egin ezean. Hasteko, publikotasunaren kontzeptua, gizarte zibilarena bezala, kontzeptu proteikoa dugu³. Halaber, kontzeptuaren eta bere esanahiaren hedadura gizartearen garapenarekin batera aldatzen da. Esparru publikoaren ezaugarriak aldatu egiten dira toki batetik bestera eta lekuan lekuko historiak eta tradizioek berriz interpretatzen dute haren esangura. Bestalde, abiapuntutzat hartzen diren ikusmolde teorikoen arabera ere aldatzen da esparru publikoaren kontzeptua. Besteak beste, eta ez da hau arazorik txikiena, publikotasuna eta pribatutasunaren arteko ertzak eta kontzeptu horiei ematen zaizkien esanahiak ez datoz bat teoria politikoen ikuspegietan. Zehazkiago adierazteko, kontzeptuon arteko taxuketa desberdinak aurkitzen ditugu gaur egun, eredu errepublikarra, komunitarista, liberala edo pragmatikoa aintzat hartzen ditugun heinean (Pécaut, 2000).

1.3. Kontzeptu-dikotomia klasikoen eraginpean

Oraintsu arte, xx. mende osoan zehar, munduaren bi ikusmolde gailendu dira pentsamendu politikoaren eta politikagintzaren erreferentzia nagusi gisa, alegia, marxismoa eta liberalismoa. Lehenengoak historiaren subjektu kolektibo batez hitz egin digu, bigarrenak Merkatuan diharduten gizabanako autonomoak hartu ditu aintzat. Lehenengoaren ikuskera holista klasean eta —kasurik txarrean— Estatuaren kontzeptuan gauzatu da. Bigarrenarentzat, Merkaturia izan da eredu eta abiapuntu. Konfigurazio ideologiko horiek metaforikoki banatuta izan dute errealtatea bien artean, publikotasuna bereganatuta bata, pribatutasuna besteak. Marxismoaren gainbeheraren ostean, baina, bazirudien liberalismoak ezin zuela areriorik izan teoria sozialean eta politikoan.

Hala ere, narrazio kolektibistak indarrez ernaberritu dira beranduko modernitateko mundu intelektualean. Ernaberritu diogu, adierazpen horiek interes intelektualetan bigarren mailan egon badira ere, ibilbide luzeko tradizioak osatzen dituztelako. Nazionalismoa dugu ikuskera kolektibista horietako bat. Eta horrekin batera, errepublikanismoa bigarrena. Okertzeko beldur handirik gabe baieztatu dezakegu, hein handi batean, errepublikanismoak bete duela azken aldi honetan sozialismoak mundu intelektualean utzitako hutsunea. Sozialismoaren —errealaren zein utopikoaren— porrotaren kariatara, herrialde garatuetako ezkerak errepublikanismoaren printzipioetara eta hizkuntza politikora bueltatu ditu begiak: elkarrekin politikoaren garrantzia, partaidetzaren balioa, interes komunaren eta bertute publikoaren jorraketa, hiritartasunaren eraikuntza eta publikotasunarekiko lotura, horiek dira egungo ezkeraren erreferentziak. Horrela, errepublikanismoa liberalismoaren

3. Ikus, adibidez, Vidal Beneyto-k jasotzen dituen adierak (Vidal Beneyto, 2003: 19-23)

alternatiba gisa nabarmendu da gero eta gehiago⁴. Ikusmolde errepublikarraren oinarria *zôon politikona* izanik, hau da, Gizabere zibikoa —eta horrekin batera, *zôon logona*, Gizabere hitzuna— komunitate politikoaren mantentzea eta partaidetza bideratzen dituen esparru publikoak lehentasun kontzeptuala eskuratzen du haren azterketan. Izan ere, ikusmolde errepublikarraren barruan esparru publikoan bilatzen du komunitateak guztien ongia, ongi komuna. Hartara, testuinguru intelektual horretan burutu dira esparru publikoaren kontzeptua berreskuratzeko eta eraberritzeko ahalegin eta gogoeta teoriko handienak.

1.4. Gure abiapuntuak

Esandakoak esanda, nondik abiatu esparru publikoaren azterketa kritiko bat egiteko? Zehaztu ditzagun gauzak. Jakina denez, politikaren ikusmolde desberdinak daude egon; horietako batzuk aristotelikoagoak dira, adostasunaren eta lankidetzaren ideiak azpimarratzen dituzte. Beste batzuk, berriz, makiavelikoagoak dira, gatazkaren ideian oinarrituta daude eta (del Aguila, 1997). Lehehengo ikuskeraren arabera, politika gizaki bihurtzen gaituen jarduera da, denen ardura diren gauzei buruzko deliberazio komunean hitza eta limurtasuna erabiltzera behartzen baikaitu. Ildo horretan, politikak toki oso garrantzitsua betetzen du hiritarren bizitzan, komunitateak partekatzen duen etikaren sortzailea delako, baita komunitatearen beraren boterearena ere. Politikaren ikuspegi atsegina dugu horixe, gorputz politikorako izaera hezitzailea eta etikoa nabarmentzen duena, eginkizun komun batean biltzen gaituen elkarlana agerian uzten duena, ikusmolde errepublikarraren ardatza osatzen duena, hitz batean.

Politikotasunaren definizio makiavelikoek, aldiz, erakusten digute politikagintza funtsean jarduera gatazkatsua eta urratzailea dela, ez-morala ere zenbaitetan. Makiaveloren hitzetan, politika egin nahi duenak “gaizkiaren bidean” barneratzeko prest egon behar du, alegia, bere etika lortu beharreko helburu politikoaren menpe jartzeko gertu. Izatez, politika, bere bigarren adieran, ez da inolaz ere lankidetzajarduera, gizakien, taldeen, interesen eta mundu-ikusmoldeen arteko lehia baizik. Hartara, politikaren zientzia boterearen zientzia modura ulertzen da.

Ikuspegi analitiko horiek agertzen dutenaz gain, esan beharra dago errealitate enpirikoan ikuskera biak aldiberekoak direla eta, itxura desberdineko oreka ezegonkorretan konbinaturik bada ere, nahasita egoten direla. Bada, boterea eta legitimitatea, gatazka eta adostasuna, elkarrekin bizi dira edozein sistema soziopolitikotan. Hori argi utzi ondoren, hala ere, ohartarazi nahi dugu gure esparru publikoaren kontzeptuaren kritikak bigarren eredia, hots, gatazkarena eta boterearena, hartuko duela abiapuntutzat. Ez da gure asmoa, hori egitean, mundu politikoaren alde bakarreko ikuspegia eskaintzea, ezpada azkenaldi honetan pentsamendu politikoan nagusitu den publikotasunaren kontzeptuaren —bereziki kontzeptu errepublikarraren— hutsuneak nabarmentzea.

4. Errepublikanismoa izan da “komunitarismoa” deitzen den korrontearen iturri intelektualetako bat. Komunitarismoak ere liberalismoaren oinarritzko printzipioak kritikatzeko ditu, bereziki haren indibidualismo ontologikoa, morala eta politikoa; hala ere, komunitarismoak adierazpen oso desberdinak dauzka eta ez dugu gure azterketan aintzat hartuko, errepublikanismoaren tradizio berean kokatzen baitugu.

Eginkizun horretarako, eta gure lana oraindik gehiago zedarritzeko, J. Habermas-en “esparru publiko burgesaren” kontzeptua hartuko dugu aintzat (Habermas, 1981) —beste aukera zenbait baztertzuz, adibidez, Dewey, Arendt edo beste batzuen proposamenak—, kontzeptu hori bilakatu baita, gure ustez, azken urteotako pentsamendu politikoan publikotasunaren eredu, eta gaiaren inguruan egiten diren hausnarketa teorikoen zein azterketa enpirikoen abiaburu. Hala ere, ez da lantxo honen helburua Habermas-en obra ezagunaren kritika sistematikoa egitea. Aitzitik, esparru publiko burgesaren kontzeptuan kontrapuntu bat baino ez dugu atzeman nahi, gaur egungo esparru publikoaren ikuspegi kritikoagoa eratzea ahalbidetuko diguna; alde batetik, ikuspegi liberal klasikoaren publikotasunaren ahulezia eta estutasuna nabarmenduz eta, bestetik, ikusmolde errepublikarrak planteatzen duen esparru publiko integratzaile eta homogineoaren idealaren oinarri ezak azaleratuz. Argi utzi nahi dugu, bestalde, ez dugula xedetzat esparru publikoaren beraren ezintasuna frogatzea, publikotasunaren kontzeptua berriz eraiki ahal izateko zenbait oharpen egitea baizik. Publikotasunaren berreraikuntza kritikoak, horrela, orain nagusi den kontzeptuak dauzkan mugak erakutsiz, haren posibilitate erreala baldintzak utzi behar ditu agerian.

Publikotasunaren kontzeptuaren kritika egitea lan antzua ez delakoan gaude. Ez dugu ahaztu behar publikotasunaren esparrua, lehen esan dugun moduan, partaidetzaren eremua dugula, eta hiritarren parte-hartzea da demokraziaren teoria normatiboaren oinarrietako bat. Bertan, ustez, hiritarrek arazo publikoak pentsatu eta aztertzen dituzte, elkarrekintzazko agertoki instituzionalizatu batean. Eginbide horretan, baina, botere harremanak eta egiturazko hertsadurak aurkitzen dituzte. Publikotasunaren mugek, hortaz, demokraziaren beraren mugak azalera-tzen dituzte. Era horretan, esparru publikoaren azterketa baliagarri ager dakiguke egungo sistema demokratikoen beraien diagnostiko bat egiteko eta, hortik aurrera, eredu normatiboan egokitzapenak zehazteko.

2. Habermas-en publikotasunaren kontzeptua, kritikaren abiaburu

Habermas-en arabera, esparru publikoa auzi publikoak edo interes komunekoa gaiak eztabaidatzeko biltzen diren gizakien ideian oinarritzen da. Haren ustez, irudikapen hori Europako lehen modernitatean gorpuzten da, estatu absolutisten botereari aurre egiteko esparru publiko burgesak eratzten hasten direnean. Publiko horiek gizartea eta Estatuaren bitarteko izatea zuten helburu, publikotasuna bide zela Estatuak publikoari kontuak eman behar zizkielakoan jarduten baitzuten elite burgesek. Hasiera batean, kontrol hori Estatuaren funtzioei buruzko informazio eskarian islatzen zen, Estatuaren zereginak iritzi publikoaren menpe egon zitezen. Baina gerorago, eskari hutsa baino harago, gizarte burgesaren interes orokortzat jotzen zena Estuari transmititzea bilakatu zen publikoaren xedea. Horren kariatara, adierazpen-askatasuna, biltzeko eskubidea eta prentsa librea bermatzeko formula legalak bideratu ziren eta, denboraren poderioz, burgesiak indar soziala eta politikoa irabazi zuen heinean, parlamentu-instituzioen eraketa lortu zen. Maila batean, hortaz, esparru publikoaren ideiak Estatuaren menperatze politikoa arrazionalizatzeko mekanismo instituzionala adierazten du, eredu horren bitartez, estatuak hiritargoaren aurrean erantzule bihurtzen dira eta.

Beste maila batean planteamenduak dauzkan ondorioak, ordea, sakonagoak dira. Izan ere, esparru publikoaren ideiak interakzio diskurtsiboaren ezinbestekotasuna hartzen du bere barnean. Irudikapenaren oinarrian arazo publikoei buruzko murrizketarik gabeko eztabaida arrazionalaren ideala datza. Hortaz, ziurtzat jotzen da eztabaidak irekia eta denentzako hurbilerraza izan behar duela. Marko horretan, interes pertsonalak onartezinak dira eta estatus-desberdintasunak prozesutik at geratzeaz batera, hizketakideek berdinkide gisa hitz egin behar dute. Mota horretako eztabaidaren emaitza guztien ongiari buruzko adostasuna litzateke.

Esparru publikoaren ikusmoldearen ahalmen utopikoa ez zen praktikan erabat bete, Habermas-ek berak onartzen duen legez (Habermas, 1981; 1992). Bereziki ez zen bermatu denak sartu ahal izatea komunikazio-esparruan. Horrez gain, esparru publikoaren ikusmolde burgesa bereizketa sendo batean oinarritzen da, alegia, Estatua eta merkatu-ekonomiaren arteko banaketan; bereizketa horrek ziurtatu behar zuen, ustez, interes pertsonalak saihestuko zituen eztabaida publikoa. Baina baldintza horiek deuseztatu egin ziren, Habermas-en ustez, gizarte-maila ez-burgesek esparru publikoan sarbidea izan zuten neurrian. Harrezkero, gizartea klase-gatazkan murgildu zen eta publikoa interes-lehian dauden taldeetan zatikatu zen. Mobilizazioek eta hitzarmen “ez-publikoek” hartu zuten denen ongiari buruzko eztabaida publiko arrazoituaren lekua. Azkenik, masademokraziaren eta Ongizate-Estatuaren sorrerarekin batera, gizartea eta Estatua arian-arian nahastu egin ziren; publikotasunak, Estatuaren kontrol kritiko gisa ulertuta, harreman publikoei utzi zien lekua, baita hedabideen eraginari eta iritzi publikoaren manipulazioari ere (Habermas, 1981).

2.1. Pribatutasuna nagusi. Hirugarren Esparrua teorikoki irudikatzen eragozpen epistemologikoak

Honaino azaldu dugu, bere lerro nagusietan laburbilduta, Habermas-en arrazoibidea. Noraino da egokia, hala ere, hark eskaintako eredia? Eskaintzen al du Habermas-en proposamenak eredu normatibo gaurkoturik esparru publiko parte-hartzailea benetako askatasungune gisa irudikatzen? M. Somers-ek, lan interesgarri batean, agerian uzten du Habermas-en Hirugarren Esparrua sortzeko ahallegina antzua dela, hark aztertutako gune publikoa, eremu pribatuaren logikara murriztuta dagoelako hasiera-hasieratik. Kontzeptuen eraketaren soziologia historikoa eginez, pentsamendu politikoak erabiltzen dituen semantika teorikoaren eta oinarri epistemologikoen historikotasuna frogatzen saiatzen da Somers. Haren ustez, Habermas-en publikotasunaren kontzeptuaren izaera, aurrepolitiko eta pribatua, kultura politiko baten testuinguruan uztartuta ulertu behar da, hain zuzen ere, hiritartasunaren teoria anglosaxoiarraren baitan. Locke-ren proposamenetatik abiatzen den kultura politiko horrek osatzen du gaur egun, oraindino, pentsamendu politiko liberalaren oinarritzko nukleoa, eta, oro har, erreferentziazko metanarrazio nagusia da pentsamendu politikoaren arloan. Kultura liberalaren suposizioetako bat gizarte-askatasunaren eremu den gizarte aurrepolitiko autonomoaren existentzia datza. Gizarte horren jatorria natura-egoera idealizatuan sustraitzen da. Horrela, gizartea —Estatuaren kontrapuntu gisa— mundu ez hertsatzaile, boluntario eta aurrepolitiko —beraz, pribatu— gisa irudikatzen da (Somers, 1997a, 1997b).

Esandakoaren harian, badakigu jakin erakunde guztiak konbentzio sozialak direna. Hala eta guztiz ere, analogia naturalizatzailen bidez, erakunde batzuek beste batzuek baino “naturalagoak” dirudite. Ondorioz, naturalagoak ematen duten instituzioek pribilegiozko aginte-egitura bat eskuratzen dute maila epistemologikoan, hau da, eraikitzaile bihurtzen dira. Natura ez dena — eraikia, artifiziala, arbitrarioa, kontingentea dena — epistemologikoki menpekotzat hartzen da. (Somers, 1997b). Jakina, irudi hori lortzeko, benetako izaera “ez-naturala” ezkutuan mantentzen da. Era horretan, bada, natura/kultura banaketa binarioa soziologia politikoaren eta pentsamendu politikoaren dikotomia nagusiei atxikita dago, hala nola pribatutasun/publikotasun, gizarte zibil/Estatu, modernitate/tradizio oposizioetan. Narrazio politikoari egotzi zaion naturalismo sozialak dikotomia horien finkotasuna bermatzen du.

Tradizio horren barruan, Habermas-en esparru publikoaren edukiak gizarte zibilaren eremuetan gauzatzen dira, hortaz, eremu aurrepolitikoetan, eta ez benetako entitate propioa daukan Hirugarren Esparru batean, potentzialki hiritartasuna eraikitzeko egokia litzatekeen partaidetza-esparruan, alegia. Posibilitate hori metanarratziotik kanpo geratzen da. Habermas-en “esparru publikoa” adiera horretan, politikatik kanpo eta politikaren aurretik sortutako espazio bat irudikatzen duenez, politikotasunari dagozkion parte hartzeko edukiez desjabetuta geratzen da. Beste hitz batzuekin esanda, erabaki publikoak hartzeko botere errealez hustuta.

Horrela, Estatuaren eta Merkatuaren hertsaduratik kanpo legokeen Hirugarren Esparru bat eraiki nahian, esparru publikoa Estatuaren eta gizarte zibilaren artean kokatzen du Habermas-ek. Baina, hori egin arren, ez dio egozten publikotasunaren esparruari benetako eduki politikorik. Haren eremuan, bada, hiritarren nortasun politikoa ez dago praktika parte-hartzaileetan oinarrituta, mundu pribatuan eta Merkatuan baizik. Horrek esan nahi du esparru pribatuak nortasun eta gaitasun jakinak dauzkaten subjektu guztiz osatuak eskaintzen dituela. Zenbat eta gehiago aztertu, argiago geratzen da, Somers-en ustez, pribatutasun pertsonalaren eta merkatu-pribatutasunaren transmutazio gisa agertzen dela Habermas-en esparru publikoa. Merkatuaren esparru publikoaren baitan kokatzen dira, horrela, esparru publikoaren posibilitatearen baldintzak.

Azalpen guztiaren ondorioa aski nabarmena da. Habermas-en kontzeptuak, gaur egun hain aipatua eta erabilia den arren, ezin eskaini lezake hiritargoaren eraketaren agertoki izan behar duen “Hirugarren Esparrua” osatzeko teorizazio egokirik. Hartara, kontzeptua ez da gauza azken urteotako dinamika historikoak teorizatzeke, ideal normatibo gisa, parte-hartzearen, erabakiaren eta eskubideen esparruaren ideiak baztertuta geratzen baitira haren proposamenetik.

2.2. Historiografiaren ikasbideak

Gure ustez, historiografiak, beste erregistro batean, baliabide interesgarriak eskaintzen ditu esparru publikoaren sorrera-prozesuaren nondik norakoak aztertzeko eta Habermas-en ikusmoldearekin alderatzeko. Izan ere, Habermas-en lanaren ostean burututako lan historiografiko zenbaitek agerian utzi dute azken urteotan, filosofo alemaniarren esparru publiko liberalaren kontzeptua zenbateraino dagoen, ikuspegi historikotik, idealizaturik eta zenbateraino den murriztailea

(Landes, 1988; Baker, 1992; Eley, 1992; Ryan, 1992; Somers, 1999). Datu berrien arabera egindako interpretazioetan argi ikusten da, besteak beste, mendebaldeko herrialdeetan sortutako esparru publiko ofiziala baztertze esanguratsuen gainean eratu zela sistematikoki.

Horren adibide dira ikuspegi feministan inspiraturik dauden lanak; haietan garbi frogatzen da genero-baztertzea maiz azaleratzen dela esparru publikoaren osaketan. Ildo horretan koka dezakegu Frantzian sortzen den esparru publiko errepublikarrari buruz Joan Landes-ek egiten duen azterketa (Landes, 1988). Landes-en aburuz, Frantziako Iraultzaren ostean agertzen den esparru publiko errepublikarra emakumeengandik hurbil zegoen saloiaren kulturari kontrajarrita osatu zen. Errepublikarrek estigmatizatu egin zuten zeharo saloiaren kultura, haien ustez “artifiziala” zen, “ematea” eta “aristokratikoa”. Ondorioz, diskurtso eta portaera publikoaren ereduei zegokienez, estilo latzagoa eta soilagoa bultzatu zuten, estilo “arrazionalagoa” eta “gizonezkoagoa”. Sorrera-une beretik, esparru publiko errepublikararen baitan gizonezkoen generoaren eraikuntzak txertatu ziren; oro har, kontrol jakobinoaren garaian, emakumea bizitza politikotik at uzten zuen logika bat nagusitu zen. Emetasuna eta publikotasuna, horrela, elkarren baztertzaile bihurtu ziren aurrerantzean.

Dena den, genero ez gain, era guztietako baztertze-ariketak burutu ziren esparru publiko liberalaren osaketan, zokoraketak prozesuaren berezko ezaugarriak izan baitziren. Eta burutu ere nonahi egin ziren, ez Frantzian soilik; Ingalaterran, Alemanian eta beste estatu batzuetan ere antzeko prozesuak aztertu dituzte historialariek. Herrialdeotan, genero-bazterreratzeak klaseen eraketan sustraituriko beste kanporaketa batzuei loturik garatu ziren. Geoff Eley-ren ustetan, borondatezko elkarte osatutako zirkulu burges berriek —hau da, gizarte zibilek— elikatu zuten bereziki esparru publikoa modernitatearen hastapenetan. Baina, klub- eta elkarte-sareak —filantropikoak, zibikoak, lanbide- eta kultura-elkarteak— ez ziren ezelan ere denentzako eskuraerazak izan. Aitzitik, gizonezko burgesentzako, ez beste inorentzako, prestakuntza eremuak bilakatu ziren testuinguru horiek. Gerorago, euren burua “klase unibertsal” gisara ikusi ahala, elite burgesak gobernatzeko aukeraren aurrean borrokatzeko prestatzen hasi zirenean, gaikuntza-eremu ez ezik, botere plataforma ere izan ziren elkarteok (Eley, 1992).

Ondorioz, klase burgesaren eraketarekin batera, gizarte zibilaren kultura propioa sortu zuen burgesiak, besteak beste, bere gizarte-ikusmoldeari atxikitako esparru publikoaren kultura. Klase horren praktikek eta nortasunak bereizketa bat ezarri zuten — Bourdieu-k erabiltzen duen zentzuan (Bourdieu, 1998) —. Izan ere, praktika burgesek bereizten zuten burgesia aurreko elite aristokratikoengandik, baina batez ere, gobernatu eta menperatu behar zituen talde herritarrengandik. Klase-arauekin batera, esparru pribatuak eta publikoak era zorrotzean banatzen zituzten genero arau berriak ere bereizketa burgesaren kodeak ziren, burgesiak bere gaineko eta menpeko talde sozialengandik aldentzeko erabili zituenak.

Gauzak horrela, Habermas-ek aipaturiko publikotasunaren diskurtso unibertsalistaren atzean, alegia, sarbidea, arrazionaltasuna eta berdintasuna aldarrikatzen dituen diskurtsoaren itzalpean, bereizketa- eta bazterketa-estrategiak garatzen direla atzeman daiteke hainbat azterketa historikotan. Bestalde, Habermas-en

irudikapena herren geratzen da, ez bakarrik esparru publiko burgesaren idealizazioa egitearren, baizik eta esparru publiko burgesa osatzeko eta bere testuinguruan kokatzeko beharrezkoak diren beste esparru batzuk aintzat hartzen ez dituelako. Horrela, Margaret Somers-ek, adibidez, azpimarratzen du nekazalgune batzuetako abeltzaintza-kultura tradizionalak XVIII. mendetik aurrera demokratizazio-mugimendu herritarretan izan duen eragina, kultura horrek parte-hartzea, publikotasuna eta elkarte-bizitza zituelako ardatz hasiera-hasieratik. Somers-ek erakusten duen moduan, esparru publiko eta kultura herritarrek aro modernoko gizarte zibilen sorreran eta horren aldeko demokratizazioan izan duten eragina ez da izan hutsaren hurrengoa, historiografia tradizionalak hala uste izan badu ere. Izan ere, tokian tokiko sustrai eta praktika kulturalak berebiziko garrantzia izan dute hiritargoaren zabalkundearen. (Somers, 1999).

Ez dira, dena den, herri-kultura tradizionalak aro modernoan esparru publikoak osatu dituzten eragile bakarrak izan. Klasea eta generoaren arabera mundu publikotik ofizialki baztertuta zeuden talde guztiek garatu zituzten ibilbide eta estrategia desberdinak bizitza politiko publikora iristeko eta han eragina izateko. (Ryan, 1992). Baita nazioaren arabera bazterturik zeudenek ere. Publikotasunaren ikuspegitik estatutik gabeko Europako nazio-esparruen inguruan azterketa historiko sistematiko gutxi egin bada ere, gauza ezaguna da Europako mugimendu nazionalistek, bereziki XIX. mendetik aurrera, ez soilik esparru politiko propioen eraikuntza baizik eta kultura- eta komunikazio-esparru alternatiboaren egituraketa izan dutela helburutzat.

Horrek guztiak erakusten digu urte askotan erabili izan den publikotasunaren kontzeptua, nazioari, klaseari eta generoari lotutako balioez kutsaturik agertzen dela, eta, Habermas-en kontzeptuaren kasuan, bereziki, era akritikoan eta implizituki onartzen duela Estatuarekin identifikaturiko publiko burgesa zela publiko zilegi bakarra, ilustrazioaren eramailea. Alta, ikusi dugunaren arabera, estatu mailako publiko burgesa ez zen inola ere publiko bakarra izan. Aitzitik, publiko burgesa eratzen zegoen une berean sortu zen hari aurre egiten zion “kontrapubliko”⁵ sorta trinkoa: publiko nazionalistak, nekazarien publikoak, eliteko emakumeenak eta publiko proletarioak, besteak beste. Beraz, modernitatearen hasieratik sortu ziren publiko desberdinak eta ez XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean, Habermas-en interpretazioan argudiatzen den legez.

Hori horrela izanik, erraz ondoriozta daiteke aro modernoan publiko-multzo lehiakideak egon badira betidanik, publiko burgesa eta beste publikoen arteko ohiko harremana gatazkatsua izan dela ezinbestean. Izatez, publiko “zokoratuak” behartuta egon ziren publiko burgesaren arau baztertzailerei aurre egitera; horretarako, jokamolde politiko berriak sortu behar izan zituzten, baita haien diskurtso publikoa bideratzeko ordezkari arauak moldatu ere. Esparru publikoa, bada, gatazkaren bidez eratu zen modernitatean. Eta esparru publiko nagusi edo hegemonikoaren ondoan, nola edo hala, beste gune batzuk garatu zituzten publiko menperatuek, haien eskariak eta nortasunak eraiki eta komunikatzeko. Hartara, bazterketak eta

5. Era horretan definitzen ditu N. Fraser-ek “menpeko kontrapublikoak”: *I propose to call these subaltern counterpublics in order to signal that they are parallel discursive arenas where members of subordinated social groups invent and circulate counterdiscourses, which in turn permit them to formulate oppositional interpretations of their identities, interests, and needs.* (Fraser, 1997: 81).

liskarrak ez ziren gertakizun hutsak izan, esparruaren osagaiak baizik. Fraser-ek gogorarazten duen moduan, ezin dugu gehiago pentsatu esparru publikoaren ikusmolde burgesa burutu gabeko ideal utopikoa izan zenik (Fraser, 1997); hori baino gehiago, kontzeptu ideologiko maskulinoa dugu, sortzen ari ziren nazioak eta klaseak menperatzea legitimatzeko erabili zena. Haatik, gaur egun ere, publikotasunaren ikuskera hegemonikoa eredu horretan sustraitzen da.

Ildo horretatik abiatuz, G. Eley-k Gramsci-ren hegemoniaren kontzeptua erabiltzen du esparru publikoaren eraketa historikoa azaltzeko. Haren ustez, esparru publiko burges ofiziala menperatze politikoaren eraldaketa bideratzeko erabilitako mekanismo instituzionala da. Eraldaketaren funtsa menperatze-ereduan datza, meperatze errepresibotik molde hegemoniko baterako iraganbidea osatzen baita, hau da, jainkozko indar batean oinarrituriko gobernutik adostasunean bermaturiko gobernura. Menperatze-eredu berri horrek, aurrekoak bezala, gizarteko talde bati besteak gobernatzeko ahalmena bermatzen dio. Halatan, menperatze hegemonikoaren eredu ezaugarritzen duen adostasuna esparru publiko ofizialean eraikitzen da (Eley, 1992).

3. Berdintasun formalaren ajeak. Esparru publikoaren ikuspegi liberala auzitan

Hiritartasunaren nolakotasuna, gaur egungo pentsamendu politiko kritikoan erabiltzen den ikuspegiari, “politika egiteko” gaitasunean oinarritzen da. Politika egite hori, jakina, botere politikoan eragina izatea edo demokrazia ordezkaitzailearen logikan ordezkari diren hautatzea baino harago doan ahalmena da. Izatez, hiritarrak, politikoki esku hartzen duen heinean, politikaren subjektu aktibo behar du izan, hots, benetako eragile (Revilla, 2002). Parte-hartze politikoak baino ez du bideratzen, hartara, hiritartasuna. Partaidetza politikoaren azterketaren ohiko arazoa, ordea, erregimen demokratikoetan aldarrikatzen den hiritar guztien berdintasun politikoaren printzipioa urraturik agertzea izaten da, egon baitaude baldintzapen erabakigarriak, hiritarrek parte hartzeko daukaten ahalmenari erasaten diotenak. Izan ere, parte-hartze politikoaren gaitasuna sozialki sortzen da, ez da naturala. Halaber, parte hartzeko baliabideak eskuratu egin behar dira —baliabide kulturalak, zibikoak, politikoak— esparru publikoan eraginkortasunez aritu ahal izateko. Gure gizartean, baina, baliabide horiek ez daude gizabanako eta talde sozial guztien eskura. Egintza politikoak, bere adierazpen desberdinetan —komunikazioak, parte-hartzeak, mobilizazioak— onurak ekartzeaz gain, kostuak ere badauzka. Baldintzapen sozialek partaidetzaren kostuak larregi igotzen dituzte zenbaitetan edo, besterik gabe, parte hartzeko premiazkoak diren baliabideak bazterratzen dituzte. (Revilla, 2002)

Pentsamendu politikoaren ikuspegi hegemonikoetan, esparru publikoaren ulermena publikotasun burgesaren eredutik abiatzen da,⁶ hau da, publikotasuna berdinen arteko komunikazio horizontalaren gune gisa hautematen duen ikuske-

6. Oraindik gaur egun, publikotasunaren zentzua, publikotasun burgesaren eredutik jasotzen da hainbat eta hainbat azterketa teorikotan; modu horretan, kontzeptuak implizituki dituen osagai historikoak naturalizatu egiten dira pentsamendu teorikoaren esparruan. *En los debates actuales sobre lo social, sobre la sociedad civil, y sobre lo público no estatal tiende a haber, como supuesto más o*

ratik. Esparru publikoaren ikusmolde burgesak daukan oinarri ahulenetako bat, hain zuzen ere, berdintasunaren suposizioan datza. Uste horrek parentesi artean uzten ditu egitura ekonomikoan, politikoan zein sozialean sortutako estatus desberdintasunek esparru publikoan, hau da, diskurtsoaren eta partaidetza politikoaren gunean, izan ditzaketan eraginak. Horrela, solaskideen klase-, nazio-, kultura- edo hizkuntza-baldintzen abstrakzioa eginez, komunikazio-esparruan berdinkide gisa parte hartzeko gaitasuna aurrakusten zaie gizartekide guztiei, baldintza horiek prozesuan inolako desorekarik ezarriko ez balute bezala. Puntu horretan, baina, berdintasun formala eta benetakoaren arteko nahasketa nabarmena gertatzen da. Izan ere, parte-hartze berdinzaleak beste eragozpen informal batzuk izaten ditu aurrez aurre, gizaki guztiei partaidetza-eskubide formala eta legala onartu ondoren sarritan ikustezin bihurtzen direnak.

Nahasketa horren ondorioz, behin baino gehiagotan —pentsamendu kritikoaren baitan ere—, berez indartsua den gizarte zibil parte-hartzailearen irudikapena nagusitu ohi da, baita haren bultzada geldiarazten duen muga bakarra, mekanismo politiko-instituzionalak jarritakoa delako ustea ere. Baina, sistema instituzionala publikotasun demokratikoaren eragozpenetako bat besterik ez da. Jakina, sistema politiko-instituzionalaren arrazionaltasunak eta hark ezarritako hertsapen juridikoek marjina zehatzak ipintzen dizkiete esparru eta interakzio publikoei. Halaber, gai publikoek, erabaki politiko eta arau legal bihurtzeko, sistema politiko-instituzionalaren filtroak iragan behar dituzte, eta haren bahean trabaturik geratzen dira maiz. Bestalde, erabaki politikoen zati handi bat, egungo gizarteetan, eztabaida publikoaren eremuetatik at geratu da, eta, hori gutxi balitz, boteregune instituzionaletan kokaturik dauden eragileak agertoki publikoaren lehen lerroan egoteko tresna publiko-mediatiko guztiak dauzkate, alegia, eztabaida-arazo guztiak, iritzi nagusiak definitzeko eta ezartzeko gaitasuna.

Haatik, hori guztia onartuta ere, esan beharra dago oker gabiltzala uste badugu sistema politiko-instituzionala dela botere hertsapenaren esparrua, gizarte zibila —eta hura protagonistatzat duen eremu publikoa— askatasuna, berdintasuna eta partaidetzaren tokia den bitartean. Demokratizazio-prozesuei buruz hitz egiten denean, hots, gizarte zibila eta esparru publikoa sendotzearen premia, sarriegi ikuspegi sinpleetara jotzen da, ziurtzat emanez gizarte-eremuetan burutzen diren egintzak eta interakzioak botere harremanetatik landa dauden printzipioek arautzen dituztela. Tradizio liberaletik jasotako antiestatismo inozoaren eraginak nabarmen azaleratzen dira horrelakoetan. Gizarte zibila, argi esan dezagun, ez da inolaz ere estatu autoritario artifizialari kontrajartzen zaion esku-hartzearen gune naturala. Parte-hartzea ez da berez sortzen. Aitzitik, ezin da gizartearen garatu baliabide material eta sinbolikoen eskuratzea arautzen duten printzipioen abstrakzioa eginez. Botere-harremanak eta -asimetriak nagusi dira gizartearen esparruan ere, eta esparru publikoa indar horien eraginpean osatzen da.

menos implícito, una noción de lo social y de la sociedad civil que tiene su origen en las formas históricas particulares en las cuales se desarrolló la sociedad civil en la experiencia europea. (...) En las perspectivas hegemónicas del pensamiento social, lo público continúa siendo pensado como lo público burgués. Ello implica una determinada concepción y práctica de la separación entre lo económico y lo político, entre lo político y lo religioso, que no es una separación "natural", sino la naturalización de una experiencia que hace una ciencia social que no es capaz de reconocer la medida en la cual sus categorías son expresión de condiciones histórico-culturales particulares. (Lander, 1998: 474, 475).

Halatan, esparru publikoan gauzaten den deliberazio politikoak kontrol-forma zoliak ezkututzen ditu. Komunikazio-egintza orok, birtualki bederen, menperatze-egintza bat hartzen du bere baitan. Ezin bestela izan, hizkuntza-egintzak, azken finean, harreman sozial asimetrikoen adierazpenak baitira. Hartara, Habermas-ek, komunikazio-harremanen atzean dauden desberdintasunak ahaztean, esaterako, despolitizatu egiten ditu harreman sozialak, gizabanakoak izaki abstraktuak, ezaugarri sozialik gabekoak, bihurtzen baititu.⁷ Bourdieu-ren hitzetan, indar-harremanak —harreman politikoak— komunikazio-harremanetara murrizten ditu, haiek daukaten botere sinbolikoa deuseztuz eta, horrela, itxuraldatuz (Bourdieu, 1999). Arrazoiaren unibertsalitatea eta unibertsaliza daitezkeen interesen existentzia adostasun arrazionalaren funtsa bihurtu nahian, filosofo alemaniarraren eredian baztertu egiten dira esparru publikoan eta politikoan dauden ezinbesteko sarrerebetebeharrak, alegia, gune horietan nagusi diren diskriminazio-faktoreak, sexua, ikasketak, errenta-maila edo jatorri etnikoa eta nazionala modukoak. Alabaina, diskriminazio mekanismoek esparrurako sarbidea eragotzi ez ezik, iritzi artikulatua eratzeke gaitasuna ere mugatzen dute (Bourdieu, 1998), eskubide formaletatik harago, benetako izaki politiko edo hiritar bihurtzeko ahalmena murriztuz. Munduari buruzko diskurtso eratu eta ordenatua egiteko gaitasuna, hau da, norbere interesak, esperientziak eta iritziak hitzekin adierazteko trebetasuna, aburu koherenteak azaldu eta horiek printzipio esplizituetan oinarritzeko ahaltsuna, ez daude gizartean berdin banaturik, guztiak sozialki sortzen baitira modu berezian. Horrela, baliabide sozial eta ekonomikoaren jabetza, baita kultura-kapitalarena ere, besteak beste, esparru publikoaren parte-hartzearen berme bihurtzen da.⁸

Hartara, menpeko taldeek haien ahotsa entzunarazteko daukaten eragozpenak gainditzea izaten da esparru publikoaren ustezko sarbide unibertsalak daukan arazoetako bat. Eta garrantzitsua da ulertzea sarbide-eskubideen prezioak alderdi materiala izateaz gain, badaukala eduki dimentsio sinboliko bat ere. Modu batean edo bestean, gizarteko talde batzuk isildu egiten dituztenean, esparru publikoan gara daitezkeen deliberazioa menderatzearen mozorro bihurtzen da. Mozorroa, ordea, ez da beti aise erantzi ahal izaten. Bereziki azpimarratzeko moduko arazoa iruditzen zaigu prozesu sinbolikoek daukaten ikustezintasun soziala, hain zuzen ere, ezaugarri horreketan datzalako desjabetze sozial eta politikorik eraginkorra. Prozesu horiek baino ez dute esplikatzen zergatik menpeko taldeek ez duten aurkitzen euren gaitasun-errepertorioan ahots egokia, hitz zuzena edo hizkuntza legitimoa jardun publikoan euren premia edo pentsamendua adierazteko. Interakzio

7. Hitz hauekin azaltzen du Y. Sintomer-ek: *Dans la vision de Jürgen Habermas, les interactions qui se déroulent sur l'espace public mettent en présence des interlocuteurs abstraits, sans corps (et du même coup sans sexe), qui sont pure argumentation. Ces interlocuteurs ne sont situés que parce qu'ils vivent à une même époque et dans une même civilisation, qu'ils partagent donc un même fond de références culturelles.* (Sintomer, 1998: 10).

8. Arazo horren zantzuak Aristoteles-en pentsamenduan aurkitzen ditugu definiturik. Aristoteles-ek bere *Politikan* lana, aisialdiaren eta giza izaeraren arteko harremanen auzia aztertzen du. Bizitza politikoa, bere ustez, hiritarren ongizatea eta bizi zoriontsua erdiestera bideraturik dago, aisialdiaren gozamina eta *areté*aren praktika bide direla. Hala ere, jarduera espiritualen eta intelektualen ardura ezin da garatu ez badaude alde aurretik premia materialak, hau da, iraupenari loturikoak, ondo bermatuta. Hartara, *eskolé* delakoa (aisialdia), bihurtzen da kulturgintzaren eta politikagintzaren berezko esparrua, hura da bertutearen (*areté*aren) praktikaren oinarria. Zoriontasunaren lorpenak bizitzaren aurretiko premien asetasuna dauka ezinbesteko baldintzatzat (Aristoteles, 1986).

publikoaren nondik-norakoa, bada, prozesu sinbolikoek bizitza sozialean daukaten eraginaz ohartzen garenean baino ezin da bere osotasunean aditu.

Ildo horretan, determinismo ekonomikoetatik at, zentzuaren eraikuntzak eta interpretaziozko prozesu sinbolikoek bizitza sozialaren sorkuntzan eta birsorkuntzan daukaten indarra erakustea izan da postestrukturalismoak gaur egungo pentsamendu politikoari egin dion ekarpenetako bat. Ekarpene horrek sakoneko ondorioak dauzka ekitate, zuzentasuna eta bedintasuna moduko ideal politikoak ulertzeko eran. Gure gizartea bezalako sistema sozial heterogeneoetan, alegia, gizarte hierarkizatuetan, kolektibitate sozialek eta kulturelek zentzuaren eraikuntzan eta interpretazio-prozesuetan benetako sarbidea eta partaidetza izan behar dutela onartzea, hartara, demokraziaren ideal normatiboaren oinarritzko eskakizuna bihurtzen da. Izatez, interpretazio- eta zentzu-eraikuntzaren tresnak, alegia, kultura-tresna hegemonikoak, gutxiengoaren monopolioa dira oraindik, eta horren eraginez, gehiengo zabalek, subjektu politiko izan ordez, ez-subjektu gisara dira. Zer dira, bada? Menpeko publikoak, publiko baztertuak, historia propioaz desjabetuak, euren gizartearen etorkizunari ezer emateko ez duten izaki isilak.⁹ Bazterketa-prozesu sinbolikoak, horietan baino ez dira “besteak” —*altertasuna*— menpeko gisa eraikitzen duten bilakabideak, horiek baino ez dute osatzen bazterketa materialaren ezkutuko dimentsio politikoak.

Bistan denez, alderdi materialean eta sinbolikoan hezurramitzen den desberdintasun sozialaren auziak kolokan jartzen du liberalismoaren oinarri sakratua. Mundu pribatua eta publikoaren arteko, —edota gizartea eta politikaren arteko— banaketa zorrotzaren printzipioa goitik behera erortzen da, instituzio politikoek gizarte-testuingurutik ustez daukaten autonomia-eza agerian geratzen denean. Auzi horri dagokionez, teoria politiko liberalak printzipio kontraesankor batean jartzen du bere abiapuntua, uste baitu bizitza politiko-demokratikoa desberdintasun sistemikoak sortzen dituzten egitura sozioekonomikoetan eta kulturaletan oinarri daitekeela. Horregatik, pentsamendu liberalaren ardura nagusia beti izan da nola indartu instituzio politikoak bereizten dituzten mugak, hau da, nola urrundu harreman berdinkideak garatuko dituen esparru politiko autonomo eta murriztua, desberdintasunak sortzen dituzten instituzio ekonomiko, kultural eta soziosexualetatik. Historiak erakutsi digu, baina, ez dagoela horretarako formula magikorik. Solaskideak berdinkide gisa jardungo duten esparru publikoa ez da desberdintasun soziala parentesi artean ipinita eraten. Demokrazia politikoak benetako berdintasuna eskatzen du, halaber, eta parekidetasunean oinarritutako parte-hartzeak desberdintasun sozial sistemikoak deuseztuz baino ez dauka lekurik. Merkatuaren dinamikak gizartearen parte hartzeko ahalmenetan eragiten dituen murriztapenak aztertzea litzateke pentsamendu kritikoaren lehen zeregina, zaila dirudien arren, egungo gizarte zibilaren aldeko goraipamen askotan ahaztua izaten dena; horrekin batera, menderatze sinbolikoaren prozesu kulturalen berri ematea bigarrena, argi edukiz, egintza sozialaren eta politikoaren subjektu izatea,

9. Azken mende erdian esparru publikoan nagusitu den ekonomia politikoak areagotu egin du bazterketa ez-formal horien eragina. Jakina denez, masa-hedabideek osatzen dituzte gaur egun iritzien, mundu-ikusmoldeen eta, oro har, ondasun sinbolikoen zirkulazioa bermatzen dituzten euskarriak. Bai bitarteko horiek sortzen duten komunikazio-motak bai haien jabetza-ereduak indartu egiten dituzte sozialki definiturik datozen bazterketa sinbolikoaren joerak.

ezagutza-subjektu izateari loturik dagoela gizarte garaikideetan. Hartara, politika-gintza eta jardun publikoaren gogoetari ezin zaio ekin gaur egun prozesu kulturalen azterketa aintzat hartu gabe. Izan ere, gizartean nagusi diren zentzuaren sorkuntzarako tresnak ez badira erabat aldatzen —eskola eta hedabideak, besteak beste—, gaitza da esparru publiko parte-hartzailearen aldeko garapenean aurrerapausu handirik egitea, ia ezinezkoa publiko autonomoak, hots, subjektu sozial eta politiko autonomo gisa dihardutenak, sortzea.

4. Publiko lehiakideak gune publiko anitzean. Esparru publikoaren ikuspegi errepublikarraren ahulgunea

Arestian aipatu legez, gizarte zibilari Estatuaren aurrean protagonismoa eta esanahi politikoa egotzi guran, behin baino gehiagotan pentsamendu politiko kritikoak gizartearen irudikapen homogeneous egiteko joera azaldu du, tradizio errepublikarrarekin bat eginez. Vallespin-ek modu zorrotzean adierazten duen moduan, gizarte zibilaren errekurtoa sistema politikoaren eta gizartearen arteko harremanetan dauden hutsune nabarmenak konpontzeko erabili ohi da teoriaren esparruan; hutsune horietako bat ondo zehazturiko subjektuaren gabezia da, bestea, integrazio normatiboaren defizita. Testuinguru horretan, gizarte zibilaren kontzeptua, beste ñabardurarik egin ezear, ihesbide kontzeptual modura agertzen da. Hura baliatuz, sistema demokratikoetan gero eta gehiago garatzen den bereizketa eta barne-zatiketa ustezko batasun sozialaren itxurapean irudikatzen da gogoeta teorikoan (Vallespin, 1996).

Orain arteko publikotasunaren azterketa klasikoek ere, gizarte zibilari buruz egindako gogoeta teorikoaren akats berdintsuak errepikatu dituzte publikoari dagokionez. Horrela, diskurtso hegemonikoan publikotasunari loturiko kontzeptu guztiak singularrean agertzen dira, eta era horretan jaso izan dira teoria politikoa. “Esparru publikoa”, bat eta bakarra izan da, eta bera bezala, bat besterik ez “iritzi publikoa” eta “publikoa” ere. Baina, azkenaldi honetan, historiaren eta azterketa enpirikoen ekarpenak tartean, eredu ideal horren funtsa kolokan jarri da era askotako lan teorikoetan (Keane, 1984, 1991, 1997; Herbst, 1994, 1996; Fraser, 1997; Sintomer, 1998; Lander, 1998; Mouffe, 1999; Sampedo, 2000).

Ikuspegi integratzaileari aurre eginez, aitzineko atalean erabili den argudiobi-deak gaur egungo gizartea desberdintasunez jositako esparrua dela pentsatzera garamatza, ondorioz, batasun sozialaz baino gehiago gizartearen baitan diharduten aktore desberdinez eta era askotako egintza eta interesez hausnartzera. Ildo beretik abiatuta, pentsatzen dugu publikoaz hitz egin beharrean, egokiagoa dela publikoez, are gehiago, publiko lehiakideez, mintzatzea. Izatez, interes, nortasun eta kokagune sozialak aintzat hartuta, publiko bakun orohartzailearen kontzeptuak ez du zehaztasunez gizarte berean osa litezkeen publiko desberdinen berri ematen, bai, ordea, haien bizitza gatazkatsua ezkatzen.

Lehenago aipatutako prozesu asimetrikoak bide direla, desberdintasun sozialak nagusi diren gizarteetan eztabaida publikoak talde menperatzaileen alde makurtuta daude nabarmen, talde menperatuek trabaz beteriko bidea urratzen duten bitartean. Esparru publiko integratzailearen aldeko ikuspegiak estali baino ez du

egiten asimetria hori, horrelako esparru handi bakanean menpeko taldeek ez baitaukate agertoki instituzional egokirik euren premiak, helburuak eta estrategiak definitzeko eta erabakitzeko. Horregatik, ikerketa historikoek erakusten diguten moduan, menpeko taldeak, publiko *outsiderak*, behartuta egon ohi dira sarritan —eremu publiko ofizial eta bakanetik at— esparru publiko alternatiboak, marjinalak zenbaitetan (Herbst, 1994, 1996), eraikitzen. Era horretan, publiko lehiakideek komunikaziorako agertoki paraleloak eratzen dituzte. Esparru horien bitartez, euren kontradiskurtsoak egiteko eta zabaltzeko aukera eduki ahal dute, baita euren nortasunak, interesak eta premiak ezagutarazteko ere.¹⁰ Zenbaitetan, aukera politikoen gorabeherak direla medio, esparru publiko iraunkorrak moldatzeko ezintasunaren aurrean menpeko publikoek behin-behineko gertakari politikoak sortzen dituzte, publikotasunean eragina daukatenak: manifestazioak, elkarretaratzeak eta eskariak, esaterako. Gertakari horiek ere, gatazka eta eskakizun isilduak gizarteratzean, behin-behineko gune publiko bihurtzen dira. Horrela, gizarte-mugimenduak sarritan kontrapublikoen eraikuntzaren lehen faseetan gauzatzen dira, esparru sozial berriak zabaltzen baitituzte, arazo, eztabaida eta eskari berrien inguruan (Eyerman eta Jamison, 1991).

Ahalegin horiek gauzatzeak ez du esan nahi esparru alternatiboak halabeharrez arrakastatsuak eta eraginkorrak izango direnik. Baina, kontrapublikoak publiko nagusiek jarritako bazterketari erantzuteko sortzen direnez, esparru propioak irabazten ahalegindu behar dute, zer edo zer izatera iritsi nahi badute. Hartara, gizarte-mugimenduen ibilbideak ongi aski erakutsi duenez, menpeko kontrapublikoek bi gunetan jarduten dute. Alde batetik, bakarleku moduko esparru txikiak osatzen dituzte, barrura begira elkartzeko eta biltzeko gune gisa funtzionatzen dutenak —talde bateko kide izateak dauzkan onuren artean ez da txikiena geroago “gizarte handian” aritzeko premiazkoa den kapital sozialaren metaketa— (Bourdieu, 2001). Bestetik, kanpora begira, gune horiek publiko zabalagoei zuzenduta dauden agitazio- eta limurtze-jarduerak burutzeko lorbide bihurtzen dira.¹¹ Beste hitz

10. Menpekoek eratzen dituzten komunikazio-esparru marjinalak menperatzearen aurkako jarkitzearen ezinbesteko baldintza izan ohi dira sarritan. Agintearen eraginetik at geratzen diren gizarte-esparruetan garatzen da holakoetan menperatuen “ezkutuko diskurtsoa”. Diskurtso-mota hori, publikoa izanda ere, esparru publiko nagusitik berezia ageri da, are gehiago, haren aurkako alternatiba modura azaltzen da. *El discurso oculto, en efecto, requiere de un público —incluso si ese público excluye necesariamente a los dominadores—. Ninguna de las prácticas ni de los discursos de la resistencia pueden existir sin una coordinación y comunicación tácita o explícita dentro del grupo subordinado. Para que esto suceda, el grupo subordinado debe crearse espacios sociales que el control y la vigilancia de sus superiores no pueden penetrar. Si queremos entender el proceso de desarrollo y codificación de la resistencia, resulta indispensable analizar la creación de esos espacios sociales marginales. Sólo especificando cómo se elaboran y se defienden esos espacios será posible pasar del sujeto rebelde individual —una construcción abstracta— a la socialización de las prácticas y discursos de resistencia (...) Los espacios sociales del discurso oculto son aquellos lugares donde ya no es necesario callarse las réplicas, reprimir la cólera, morderse la lengua y, donde, fuera de las relaciones de dominación, se puede hablar con vehemencia, con todas las palabras* (Scott, 2003: 174, 176).

11. *There are undoubtedly thousands of examples of marginal groups, left out of mainstream political conversation because of race, ethnicity, gender, sexual preference, or ideology, who have created unique forms of rhetoric and unique symbolic repertoires. These languages are usually formulated for two reasons. First, such rhetorics bind members of a group together, giving them a sense of identity and cohesion. In some cases, these forms of discourse evolve naturally, as a group gains in numbers or coherence. In others, such languages are introduced by strong leaders and visionaries who strive to give a group or social movement a common set of symbolic forms to work with. Second, unconventional forms of communication are attempts to attract the attention of mainstream*

batzuekin esanda, azaleratzen ari diren publikoek parte-hartze publikorako baliabideak eraikitzen dituzte talde osaketaren bitartez. Aldi berean, taldean publiko gisa gaitzen dira, eginez, jardunez, politizatuz, munduari buruzko interpretazio berriak komunikatuz.

Horrela, ikusmolde burgesak bere arretagunea iritziaren elementuan jartzen badu ere, ezin da ahaztu esparru publikoak iritziaren adierazpenerako agertokiak ez ezik nortasun sozialen osaketarako eta adierazpenerako lekuak ere badirela. Partaidetza, beraz, ez da soilik gai baten inguruan zerbait adierazteko gauzatzen den egintza; edukiekin batera adierazpen-modua bera aintzat hartzeko elementua da parte-hartze horretan. Azken finean, formalismo hutsetik harago, parte-hartzeak ahots propioarekin mintzatzea esan nahi du eta, aldi berean, nork bere nortasuna azaldu ahal izatea erabilitako hizkuntzan eta moldeetan (Fraser, 1997).

Eztabaidagai dugun publiko bakunaren ideiak, bestalde, espazio bakunezko metafora topologikoa izan du osagarri. Gaur egungo pentsamendu politikoan ohikoa den metafora horren arabera, esparru publiko batean integratzen diren hiritarrak mugatuta dagoen lurralde jakin bateko kideak dira, alegia, nazio-estatuari dagokion lurraldeko biztanleak. Ideia horrek badauka bere funtsa, esparru publiko burgesa Estatuaren mugetan eratu zelako eta, harrezkero, haren legitimazio beharretara makurtuta egonik, esparru "biltzaile" itxurapean agertu delako. Baina, publikotasun hegemonikoaren irudikapen hori ez da batere egokia partaidetza balio handizatzen duten gaur egungo proposamen normatiboetan. Eta, gainera, ez dator bat errealitate enpirikoarekin ere. Publikotasun estatala Estatuak ezarri zituen hizkuntza bakarra, kultura bakarra, erlijio bakarra eta esparru politiko bakarraren ideiei loturik agertzen da. Gizabanako modura eskubide formal berberak dauzkaten hiritarren printzipio liberalaren arabera baino ez bada arautzen, publikotasun estatalak ezin ditu aintzat hartu printzipio horretatik kanpo geratu diren errealitate kulturalak, sozialak edo etnikoak. Hori dela eta, publikotasun estatalaren oinarrian sustraiturik egon diren ikuspegi integratzaile eta indibidualistak eragotzi egin dituzte gizartearen heterogeneotasunaren onspena eta publiko izateko asmoa duten taldeen benetako partaidetza. Gaur egun gauza nabarmena da gune publiko guztiak ez daudela eratuta estatu-mugen arabera. Izan ere, Estatuaren lurralde-eremua publikotasuna eraikitzeko eremu nagusia den arren —batez ere Estatuak publikotasunari jartzen dizkion hertsapen juridiko-instituzionalengatik— ez da inolaz ere bakarra. Esparru publiko bakarrak hitz egingo bagenu, gizarteko gutxiengo batzuek osaturiko talde pribilegiatuen esperientzietara mugatuko litzateke gure azterketa, hots, elite politikoen eta mediatikoen eta interes-talde nagusien, batik bat, moldatzen duten esparru publiko hegemonikora.

Hartara, gure gogoeta ikuspegi murriztaile horretara mugatu nahi ez badugu, behintzat, zuzenago deritzogu elkar gurutzaturik eta loturik, sarritan gatazkan, dauden era askotako komunikazioguneez mintzatzeari, irudikapen horrek hobeto islatzen dituelakoan bitzita publikoaren aniztasuna eta dibertsitatea, eta taldeen botere desberdintasunak. Izan ere, esparru publiko ustez biltzaile horren azpitik, integrazio- eta komunikazio-mikroesparru ugariak garatzen dira eta, haien gainetik ere, —dudarik gabe, teknologia berriek posibilitate handiak zabaltzen dituzte arlo honetan— estatu-esparrua gainditzen duten guneak zabaltzen dira azkenaldi honetan.

actors — citizens, journalists, legislators, and the like. Since marginal groups and individuals are often restricted somehow from using the forums and media of communication of the mainstream, they are forced to create their own if they are to be noticed at all (Herbst, 1996 : 122-123).

Alde batetik, hortaz, bizitza publikoa “feudalizatu” egin da, baina ez Habermas-ek feudalizatze-kontzeptuari ematen dion adieran (Habermas, 1981). Feudalizatzeak esan nahi du, gogoeta honen testuinguruan, hedadura eta eduki askotako esparru publikoek osatzen dutela gaur egun publikotasunaren mosaikoa. Esparruok ez dira gune isolatuak, aitzitik, elkarri loturik eta gainjarririk daude, kontrajarririk ere askotan, baina ez derrigorrez esparru bakar batean “integraturik”. Publiko/pribatu binomio klasikoak agintzen duenaren kontra, bai eguneroko bizitzan zein esparru politiko-instituzionalaren zirrikituetan zabaltzen dira —neurri, eduki eta itxura desberdinekin garatuz— egintza, eztabaida eta komunikaziorako guneak. Haien tamainak ez dio, definizioz, publikotasunari mugarik jartzen. Indartsuak edo ahulak izan, hedadura mugatua edo handia agertu, interesei loturiko eztabaidaguneak eta botere-adierazpenak dira bete-betean.

Honaino iritsita, harreman esparruen tamaina hizpide dugula, eguneroko bizitzaren esparru txikietan bizitza publikorik ote dagoen galdera ere mahaigainera dezakegu. Izan ere, iragan urteotako soziologiak arreta jarrita izan du eguneroko bizitzako eremuetan. Hala ere, oraintsu arte ez zaie esparruoi eragin politiko handirik egotzi, publiko/pribatu sailkapen klasikoetan gune pribatutzat jo direlako. Gauzak aldatzen hasi dira, ordea. Hartara, bizitza pribatuaren mailak beste dimentsio bat hartu du azkenaldi honetan, dimentsio politikoagoa, argi esateko. Aldaketa horren kariatara, politikagintzaren eta politikotasunaren zentzuak ere aldatu egin dira poliki-poliki. Hein batean, pribatutasunaren politizatze-prozesuak deseginda uzten du publiko/pribatu sailkapenaren funtsa. Aldi berean, politizatze horrek azaleratu egiten du pribatutasunaren definizio tradizionalen arbitrariotasuna. Halatan, gaur egun onartuta dago Keane-k “mikroesparru publikoak” deritzen eskala txikiko gune publikoetan osatzen dituztela hiritarrek euren nortasunak (Keane, 1991, 1997). Are gehiago, gune horietan maila “lokaleko” bizitza publikoa eragotzi nahi duten egitura “bertikalei” aurre egiten zaie, baita gizartean nagusi diren menperatze-logika batzuei ere (Scott, 2003).

Melucci-k eta beste autore batzuek azpimarratu duten moduan, mikroesparru publikoak gizarte-mugimenduen osaketaren ezaugarri garrantzitsua dira. Mugimenduok, gehienetan —eta, batez ere, hastapen-faseetan— oihartzun publiko handirik ez duten sareetan oinarritzen dira (Melucci, 1996, 1999, 2001). Talde edo elkarte txikiek osatzen dituzte sareak, eguneroko bizitzan txertaturik dauden adiskidetasun-harremanak, elkartasunak eta ekimen lokalak biltzen dira haien baitan. Lurpeko sare ikustezin horietan parte-hartzaileen premiak komunikatzen dira eta elkartasunak lehenesten dira; horrexegatik, esperientzia berriak burutzeko eta ezagutarazteko laborategi sozial egokiak izan ohi dira. Beste modu batera esanda, laborategi horietan eguneroko bizitzan nagusi diren kodeak aldatzeko saiakuntzak egiten dira. Noizean behin, mikroesparru publikoek hedabideek transmititzen dituzten gertakari publiko ikusgarriekin bat egiten dute. Hala ere, mikroesparruen berezko indarra, hein batean, ia ikustezinak izatean datza. Politi-zazioaren aurretik —hau da, “publikazio ofizialaren” aurretik— gauzatzen diren zentzuaren eraikuntza-saioak maila ikustezin horretan garatzen dira.

Mikroesparru publikoak, beste hedadura bateko gune publikoen antzera, gatazka-guneak dira. Gizakiek eta taldeek mikroesparruetan euren autonomia eraikitzeko egiten dituzten ahaleginek talka egiten dute menperatzearen logikarekin eta

bizitza ustez “pribatuaren” gain ezartzen diren kontrol sistemiko gero eta handiagoekin. Izan ere, gizarte garaikideetan, nortasun indibidualari dagozkion gaietan, gorputzarekin, sexualitatearekin eta ugalketarekin zerikusia daukaten aferetan, eta beste hainbat eta hainbat erabakitan egiten diren interbentzioak areagotu egin dira, eta lehenagoko “pribatutasunak” babeslekuaren zentzua galdu du, esanahi politikoagoa eskuratu duen bitartean. Botere-aferak, beraz, bizitza sozialaren azken zirrikietaraino sartu dira.

Hala eta guztiz, garrantzitsuak izanda ere, mikroesparruek ez dute agortzen publikotasuna, aitzitik, azken horren gune bat gehiago baino ez dira. Bizitza publikoa mikroesparru publikoetan gertatzeaz gain, mesoesparruetan eta makroesparruetan ere garatzen da (Keane, 1984, 1991, 1997). Hortaz, ondo dago Melucci-k salatzen duen “ikusgaitasunaren miopia” baina miopia horrek ezin gaitu eraman beste muturreko erredukzionismoa egitera, alegia, bizitza publikoa desinstituzionalizaturik —edo erakunde “ahulen” inguruan— eta ikusgaitasun eskasarekin garatzen den eremuetera murriztera.

Mesoesparruak jende askok osaturiko gune publikoak dira boterearen inguruan eztabaidatzeko eta lehiatzeko. Berriz ere, Estatuaren topikoa gainditu beharra dago, gune publiko horiek ez baitute derrigorrez Estatuaren eremuarekin bat etorri behar. Hartara, Estatu barruan era daitezke, edo Estatu gaindi dezakete: talde erlijiosoek, hizkuntza-komunitateek, nazio-taldeek, etab., eraketa maila desberdinekin, horrelako esparruak osatzen dituzte sarritan. Jakina, neurri horretako esparruek ez dituzte beste tamaina batzuetakoak baztertzen. Mesoesparruetan tartekaturik mikroesparruak eratzen dira. Azken horiek presio egiten dute behetik; hala ere, mesoesparruek, behin osatuta daudenean, erresistentzia handia erakusten dute. Izan ere, maila horretako esparruek baliabide instituzional boteretsuak eta eraginkorrak behar dituzte osatzeko —besteak beste, komunikazio-eremu mediatikoa eta kultura-industria sendoak—. Gauzatzen diren komunikazioen izaera, beraz, ez da aurrez aurreko eztabaida zuzenean oinarritzen, mekanismo artekariak eta ordezkatzailleak bideratzen dituzten prozesuetan baizik. Prozesu horien ondorioz, asimetria sozialak, egiturazko desberdintasunak eta komunikazio-distortsioak arruntago bihurtzen dira esparru horretako zein makroesparruetako bizitza publikoan.

Gauzak horrela, ondorio modura esan beharko genuke esparru publikoen aniztasunaren ideiak, publiko askotariko eta lehiakideenak bezala, kolokan jartzen duela gaur egun errepublikanismoa berpizteko egiten diren deien egokitasuna. Pentsamendu politikoaren baitan, tradizio errepublikarraren abiapuntua Estatuaren mailako esparru publiko orohartzaile eta bakar batean burutzen den eztabaidaren ideian datza.¹² Baina, “interes publikoaren” eta “iritzi publikoaren” iturri den esparru

12. Interpretaziorik malguenetan ere, esparru publiko desberdinen existentzia onartu ondoren, Estatu-mailako esparru publiko nagusiaren menpekotzat hartzen dira gainerako esparru publiko “periferikoak”. *Cabría concebir al menos, dos tipos de esferas públicas. Una esfera pública común dominada por las instituciones más asentadas de la sociedad civil y que genera debates cohesionadores y formalizados, sobre la gestión del poder y los valores colectivos. Esta esfera crea un “espacio común” que debiera nutrirse de otras esferas públicas más reducidas, si no quiere estancarse. Las esferas periféricas sostienen comunidades y ofrecen incentivos a la participación contrarrestando las exclusiones de la esfera pública central* (Sampedro, 2000 : 42).

publiko estatal bateratuaren dogma defendaezina da gaur egun, eduki enpirikoz husturik dagoen eredu bat ez badugu eraiki nahi, bederen. Ikuspegi normatiboan, tradizio errepublikarra aintzat hartzeko moduko balioen eramaile da, hala partaidetza politikoaren balioa nola gizakiek komunitate politikoan izan behar duten integrazioarena. Arazoa, alabaina, komunitate politikoa pluralismo modernoarekin —eta demokraziarekin— ezin batera daitekeen moduan ulertzen denean agertzen da (Mouffe, 1999). Politikotasunaren ikuspegi aurrepolitiko horrek, hartara, era guztietako interes indibidual eta kolektiboen aurretik existitzen den ongi publikoaren ideia darama erantsita, ongi publikoa interesetatik independentea balitz bezala.

5. Definizio sozialen arteko lehia sinbolikoak: publikotasunaren eta pribatutasunaren muga aldakorrak zedarritzen

Arestian azaldu denez, historian zehar publiko menperatuak publiko nagusiekin lehian agertzen dira esparru publikoan. Lehiagunean dagoen arazo nagusietako bat esparru publikoaren eztabaidagai zilegien erreperitorioaren onespina izaten da. Beste hitz batzuetan esanda, esparru publikoaren beraren muga egokiak ezartzea izan ohi da esparruaren baitan auzitan dagoen afera. Ildo horretan, azterketa politikoetan aurkitzen ditugun gogoeta normatiboak eta enpirikoak elkartezinak dira behin baino gehiagotan, pribatutasunaren eta publikotasunaren eremuak mugatzean, azterketa horiek teorikoki konpondu gura izaten dutelako errealitate sozialean konpondu barik dagoena. Azpimarratu gura dugu, hortaz, honako ideia hau: publikotasunaren irudikapena ezin da zientifikoki behin betirako definitu. Historikoa eta kontingentea da, “muga politiko, sozial eta kulturalak ez baitira historia barik sortzen” (Somers, 1997b); are gehiago, interes-lehiaren emaitza dugu publikotasuna, tartean dauden indar sinbolikoen orekaren arabera; hortaz, aldakorra.¹³

Habermas-en bertsiotan esparru publikoan “gai publikoen” inguruan deliberatzen duten gizaki pribatuak biltzen dira. Baina, zer da gai pribatua eta zer hartu behar da ardura publikotzat? Publikotasunak orain arte, eta gaur egun ere, esanahi asko izan ditu¹⁴. Publikotasunaren eta pribatutasunaren arteko mugak, gainera, aldakorrak izan dira historikoki (Benhabib, 1992). Maila analitiko batean, esparru publikoaren ikuskera normatibo desberdinak publikotasunaren mugak zedarritzen saiatzen badira ere, praktika politikoetan ezin da *a priori* inolako hesirik eraiki, ez baitago horretan, beste edozein gizarte-egitaterik bezala, naturak inposaturiko molderik. Hartara, gai bat bera ere ezin ezar daiteke alde aurretik publikotasunaren mugetatik at. Aitzitik, publikotasun demokratikoak gutxiengoan aukerak bermatu beharko lituzke positiboki, lehenago publikoak izan ez diren gaien inguruko egokitasunaren alde lehia daitezen.

13. Irudikapenen arbitrariotasuna agerian geratzen da sailkapenak kaltetzen dituen taldeen interesak aintzat hartzen baditugu: hizkuntza gutxituen erabilera erabaki pribatuaren mailan kokatu behar dela irakurtzen dugunean, edo gizonezkoek emakumezkoen gain erabiltzen duten indarkeria etxebarruko gertakaria dela entzutean, horrelako ariketa bat egin daiteke.

14. Ikus, adibidez, Rabotnikof, 1997; Thompson, 1996, 1998.

5.1. Guztien ongia, alde zurretik definituriko factum-a?

Esparru publikoaren mugen arazoa —eta haren inguruan sortzen diren tirabiren aferak— zeharo saihestuta geratzen da kontzeptualizazio teoriko askotan. Horien adibide argiena eredu zibiko-errepublikarrean aurkitzen dugu. Tradizio errepublikarrak politikaren ikusmolde zehatz bat nabarmentzen du; haren arabera, politika gizakiek elkartean egiten duten arrazoiketara litzateke, lehenetasun indibidualak gainditzen dituen ongi komuna sustatzeko asmoz. Horrela, esparru publikoan, deliberazioaren bitartez, publikoaren kideek guztien ongia asma edo sor dezakete. Deliberazioan zehar, bada, itxuraldaketa argia gertatzen da, hasieran gizaki pribatuak eta berekoiak izan diren parte-hartzaileak publikotasunaz arduratzen diren taldekide bihurtzen baitira, interes komunaren alde elkartean jarduteko gauza direnak. Nabarmena denez, ikuskera horretan, interes pribatuek ez daukate leku propiorik esparru publiko politikoan. Gehien jota, abiapuntu aurrepolitikoak izan daitezke, beti ere eztabaidan zehar, eraldatu eta gainditu egin behar direnak.

Arestian esan den moduan, ikuspuntu errepublikarrak eraginkortasun kritikoa kentzen dizkion ahulguneak dauzka oinarri-oinarrizko argudiaketan. Alde batetik, esparru publikoan diharduen indar bakarra argudioak eta arrazoiketak bideratzen dutena da, adostasuna xede izanik ezinbestean. Publikotasun ideal horretan ez dira aintzakotzat hartzen adostasun sistemikoen inposaketak, erretorika ez-arrazionalen presentzia edo interes-gatazkaren eraginak. Horrekin batera, uste da deliberazioak ongi komunari buruzko eztabaida izan behar duela halabeharrez. Ondorioz, “gu” bakarra eta oro-hartzailearen ikuspegitik antolatzen da eztabaida, kontuan hartu gabe interes indibidualak edo talde-interesak —elementu gatazkatsuak, hortaz— bidera ditzaketen proposamenen existentzia (Fraser, 1997). Haatik, interes eta kokapen sozial desberdinak daudela onartzea baldin bada, gure abiapuntua, arrazoibide logiko horretan jarraituz esan beharko dugu, orokorrean ez dagoela alde zurretik jakiterik deliberazio-prozesu baten emaitza ongi komunaren aurkikuntza izango den ala ez. Lehen posibilitate hori bete dadin, nola edo hala, interes-gatazkek gaindituta geratu behar dute. Litekeena da, ordea, interes-gatazkaren egoerak bere horretan irautea eta ongi komuna erdiestezina izatea. Errepublikanismoak ez du holakorik aurrakusten.

Guztien ongia ezin bada alde zurretik irudikatu, ondorio modura, esparru publikoan auzitara daitekeenari mugarik ezin ipin dakiokelakoan gaude. Izan ere, ongi komunaren ideia ezin da aurredefiniturik aurkeztu, gizakien eta taldeen gaiak, interesak eta ikuspuntu desberdinak alde zurretik murriztu eta zokoratu nahi ez badira behintzat. Desberdintasunez betetako gizarteetan —eta halakoak dira oraingoz gaur egun ezagutzen ditugunak— ongi komuna jadanik eginda eta egonkortuta dagoen adostasun gisa irudikatzen den guztietan, hortaz, mesfidantza eduki beharra dago. Horrek ez du esan nahi oinarri komun batzuk lortu ezin direnik, bizitza sozial eta politikoa oinarri horien gainean garatzen baita. Ez da ahaztu behar, baina, adostasunak unean uneko indar-harremanen arteko oreka-puntuak direla, eta adostasunak eraikitzean presio sistemikoak eta menperatze-harremanak tartean daudela beti.

14. Ikus, adibidez, Rabotnikof, 1997; Thompson, 1996, 1998.

Hala ere, ikuspegi ideal batean, ongi komunaren definizio-puntu horretara iritsi baino lehenago gizarteko gizaki eta talde guztiek euren premiak eta eztabaida-gaiak publikoki aurkezteko aukera izan beharko lukete. Halaber, aurkezteko aukera izan aurretik, publiko menperatuek beraien gaien izaera publikoa, alegia, gaien zilegitasuna frogatu behar lukete. Horrek nabarmen uzten du publikotasuna eraiki egin behar dela, sozialki eraiki ere, eta esparru publikoa irabazi eta zabaldu egin behar dela eztabaida berrietara. Eraikuntza-prozesu hori, hala ere, eskuarki neketsua eta latza izan ohi da menpeko kontrapublikoentzat.

5. 2. Arazo publikoen zilegitasuna lehian

Arestian aipatu dugun ideari helduz, esparru publikoaren edozein ikuspegi kritikok zalantzatan ipini behar du pribatutasunaren eta publikotasunaren kontzeptuen esanahia eta bien arteko bereizketaren zergatia. Bi kontzeptu horiek ez dira gizarte-esparruen sailkapen neutralak. Aitzitik, alde batean eta bestean kokatzen diren gaiak eta interesei estatus eta legitimitate-maila desberdinak egozten zaizkie. Hori dela eta, diskurtso politikoan “pribatu eta publikoaren” kontzeptuak interes, ikuspegi eta gai batzuk deslegitimizatzeko eta beste zenbait balioztatzeko erabiltzen dira.

Hemen aurkezten dugun esparru publikoaren irakurketak —hedadura aldako-rreko gune gatazkatsu gisa azaltzen duen ikuspegiak, alegia— abiapuntutzat hartzen du soziologian gauza arras nabarmena den printzipioa, alegia, errealitate soziala eraiki egiten dela. Eraikuntza hori, hala ere, ez da ezerezaren gainean egiten, ezpada hertsapen-baldintza objektibo batzuen testuinguruan. Mundu sozialak, gainera, sistema sinboliko modura funtzionatzen du eta haren hautematearen inguruan etengabeko borroka sinbolikoak gertatzen dira: gizartearen sen ona sortzeko, errealitatearen izendapen legitimoa lortzeko, azken batez, esanahi batzuen izate publikoa bermatzeko. Baina, botere sinbolikoa, hau da, ikuspegi legitimoa ezartzeko gaitasuna —*worldmaking* boterea, azken finean— era desberdinean banaturik ageri da eragile sozialen artean. Izatez, gaitasun hori gizaki- eta gizartelaldeek dauzkaten baliabideen arabera aldatzen da (Melucci 1999).

Hori azalduz, gauza erraza da esandakotik ondorioztatzea mundu sozialaren irudikapenen sorkuntza lehia politiko oren osagai berebizikoa dela. Jakina, irudikapen horiei hedadura publikoa onartzen zaienean, euren eraginkortasuna askoz ere handiagoa izaten da. Publikotasunaren desafioa, bada, sailkapen kontu hutsa baino gehiago, desafio politikoa da. Gizarte politiko guztietan legitimitzat jotzen den arazo-sorta bat definitzen da; horiek izaten dira esparru publiko “nagusian” eztabaidagai bihurtzen diren arazoak, arazo publikoak, Estatuak berak ofizialtzen eta bermatzen dituenak. Multzo horretan sarbidea izan nahi duen gaiak lehendabizi “gai” —edo, nahiago bada, “arazo”, “iritzi”, “interes”— modura artikulatu beharra dauka, eta horretarako, arestian esan dugun legez, kontrapublikoek euren eragozpen estrukturalak gainditu behar dituzte. Baina, hortik at, gaiak publikotasunaren estatusa irabazi behar du.

Maila horretan, arazo publikoen eraikuntza egungo gizarteetan prozesu korapilatsua izaten da. Eskuarki, prozesua bitzta sozialaren esparru txikietan hasten da, mikroesparru publikoetan eta gizarte-mugimenduetan (Eyerman eta Jamison, 1991), baina ondorengo publifikazioa ez da beti arrakastatsua izaten, lehia

sinbolikoen logikapean gauzatzen baita. Bilerak, batzordeak, elkarteak, era guztietako eskariak, egitasmoak, gizarte-mugimenduak, manifestazioak, hauteskundeak eta hainbat eta hainbat ekimen egin behar izaten dira askotan, kontrapublikoek auzi batzuk publikoak izatea lor dezaten. Era berean, legitimitatea eskuratzeko prozesu horretan, gaur egungo sistema sozialetan gero eta ezinbestekoagoa da hedabideen eta ezagutza zientifikoaren erabilerara jotzea, hots, ikerkuntza-programak garatzea, adituen eta intelektualen laguntza erakartzea, eta estrategia mediatikoak prestatzea, besteak beste. Gaur egungo gizarteetan zilegitasuna irabazteko eginbideak, beraz, gero eta lan teknikoagoa eskatzen du, eta kapital sinboliko handia metatzea eta inbertitzea. Lehia sinbolikoan, jakina, esparru politikoak eta bere burokrasia guztiek, adituak eta hedabideak barne, askoz ere baliabide gehiago —hortaz, ahalmen handiagoa— daukate izaera “unibertuala” duten arazo sozialak eratzeko. Haiei aurre egiteko, bada, ahuldade-egoera batetik bada ere, ahal den neurrian bitarteko berberekin jokatu behar dute kontrapublikoek esparru publiko nagusian eta txikietan, baliabide tekniko, zientifiko eta mediatikoak baliatuz, batik bat.

Prozesu horiek, berriz ere, erakusten digute partaidetzaren hertsapen formalak deuseztea ez dela nahikoa publiko guztien benetako presentzia bermatzeko. Pribatutasuna *versus* publikotasunaren erretorikak funtzio ideologiko nabarmena betetzen du: esparru publikoaren mugak zedarritzean, sailkapen horrek talde sozial menperatuak atzerabidean uzten ditu, horrela, salaketa publiko legitimoaren esparrua murriztuz. Pribatutasunaren erretorika bereziki nabarmena izan da gai batzuetan; Estaturik gabeko nazio taldeen kulturak, etxe barruko harremanak eta harreman ekonomikoak, besteak beste, luzaroan eztabaida publiko-politikotik kanpo utzi gura izan dira. Era horretan, nazio menperatuetan, genero-harremanetan eta merkatuen baitan jasan den biolentzia sinbolikoa, “isilagoa” izatean —publikotasunetik at kokaturik egotean— bortitzago egin da.

6. Masa-hedabideak eztabaida publikoaren bitarteko direnean

Publikotasuna ezin da ulertu gaur egun masa-hedabideeen bitartekaritza aintzat hartu gabe. Bitartekaritza hori dela medio, hedabideek eragin egituratzailea daukate bizitza sozial eta politikoaren baitan. Herbst-ek eta Sampedro-k gogorazten duten moduan, hedabide handiek, elite politiko eta interes talde boteretsuekin batera moldatzen dute batik bat esparru publiko nagusia (Herbst, 1996; Sampedro, 2000). Hala ere, publikotasunak, pentsamendu politikoaren eremuan erabiltzen diren adiera askotan, izaera aurremediatikoaren kutsua dauka oraindik gaur egun. Habermas-en esparru publikoaren ikuskerara jotzen badugu, esaterako, — bai esparru publiko burgesaren azterketara edo, gero jorratzen duen diskurtso praktikoaren eredura — ohartuko gara oinarrian elkarriketazko ikuskera bat nagusitzen dela kontzeptu horietan. Beste hitz batzuekin esanda, gizakiak partekaturiko gunean biltzen direla suposatzen da, eta elkarren artean hitz egiten dutela, aurrez aurreko elkarriketan parte-hartzaile eta berdinkide balira bezala (Thompson, 1996, 1998). Ikusmolde horrek, beraz, ez ditu jasotzen hedabideek ezarri dituzten komunikazio-ereduak eta, ondorioz, hedabideok baldintzatu duten esparru publikoaren egitura.

Thompson-en iritziz, bere lehenengo lanean, Habermas ez zen prentsan interesaturik egon, hau da, komunikabidearen beraren ezaugarrietan edo komunikabideak eragindako harreman sozialetan. Prentsaren inguruan egin zuen hausnarketa, funtsean, ahozko mintzairan oinarrituriko komunikazio-ereduan zetzan: horrela, sozialitate burgesaren guneeetan alde zurretik hasita zegoen elkarrizketaren atal bihurtu zuen aldizkako prentsa Habermas-ek. Prentsa hori klubak eta kafe-etxeen bizitzari lotuta zegoen eranskina zen (Thompson, 1996, 1998), ez elementu egituratzailea. Hartara, prentsak esparru publiko burgesaren eraketan leku garrantzitsua izan bazuen ere, Habermas-en publikotasuna ez zen prentsari begira definitu, prentsak suspertzen zituen aurrez aurreko elkarrizketen inguruan baizik. Dударik gabe, esparru publiko burgesaren ikusmoldeak Grezia klasikoan garatu zen bitzita publikoaren eredia dauka muinean. Pariseko eta Londreseko saloiak, klubak eta kafe-etxeak, Europa modernoaren hastapenetan, antzinako Greziako biltzarren baliokide bilakatzen dira eredu horretan. Grezian bezala, esparru publiko burgesaren ideala mintzamenaren inguruan eratu zen —argudio, iritzi eta ikuspuntuen alderatzean— azken finean, partekaturiko gune batean burututako hizketa trukean. Ikuspegi aurremediatiko hori, Habermas-ek lehen modernitatean amaitutzat ematen duen arren (Habermas, 1981), gaur egun arte mantendu da esparru publikoari buruzko gogoeta teoriko askotan.

Masa-hedabideen garapenak, ordea, eredu tradizional horretara makurtu ezin den publikotasun-forma berria sortzen du. Garapen mediatikoak, bada, gune komun batean gauza daitekeen parte-hartzetik urrundu egin du publikotasuna. Aditu mediatikoen ustetan, publikotasun garaikidea desespazializatua ez ezik, ez-elkarrizketakoa, hau da, monologikoa ere bada (Thompson, 1998; Noelle-Neumann, 1995). Era berean, egungo publikotasuna hedabideek sortzen duten ikuspen bereizgarriari atxikirik geratzen da.

Publikotasunak dauzkan esanahi desberdinen artean ikusgaitasunaren ideia garrantzitsua da oso.¹⁵ Thompson-ek sakon aztertzen ditu ikusgaitasun mediatikoaren ezaugarriak eta haren eraginak egungo publikotasunean (Thompson, 1998). Espazio pribatuan sekretuak, ezkutuko gaiak edo begiradari osten zaizkion gauza guztiak biltzen dira; horietatik zeharo urruntzen dira eskuarki esparru publikoari egozten zaizkion zenbait ezaugarri, hala nola agerikotasuna, gardentasuna edo ikusgaitasuna (Rabotnikof, 1997; Béjar, 2000). Elkarrizketak bezala, ikusgaitasunak ere aurrez aurreko presentziaren ideia darama itsatsita. Hedabideen etorrerakin, baina, publikotasunaren eta ikusgaitasunaren ateak txikiago egiten dira. Mikroesparruetatik harago, esparru publiko zabaletara —batez ere, esparru “nagusira”— iristeko bidea hedabideen esku geratzen da egungo gizarteetan; ondorioz, areagotu egiten dira publikotasunari jartzen zaizkion murriztapenak, bai sarbidearen posibilitateari dagozkionak, bai elkarrizketa-posibilitateari dagozkionak, bai ikusgaitasunari dagozkionak, informazioaren ekoizleen eta hartzaileen artean egiturazko asimetria baitago. Publikoak, masa-hedabideen garaian, C. Wright Mills-ek aspaldi esan zuen moduan, audientzia bilakatzen dira, hartzaile eta

15. Pentsalari asko ohartu da politika eta ikusgaitasun publikoaren arteko harremanez. Horrela, politika ikusgaitasun-harremanak arautzea dela adierazten digu Innerarity-k (Innerarity, 2002 : 117). Ildo berean, Champagneren ustez, publikokoki hitz egiteko eskubidea nork daukan, eta noren izenean, erabakitzen duen borroka da politika (Champagne, 1990: 252).

ez sortzaile. Price-k gogorarazten digun legez, elkarrizketa eta eztabaida konzeptuak egokiak izan zitezkeen XVIII. mendeko saloietan burutzen ziren truke kulturalen ezaugarritzeko, baina, publiko modernoan hedabideak deskribatzeko metafora zehaztugabeak besterik ez dira (Price, 1994). Izan ere, eztabaida publikoak hedabideekin daukan menpekotasunak talde txikietan agertzen ez diren komunikazio baldintzatuak sortzen ditu.¹⁶

Esparru publikoa, maila idealean, komunikazio-esparrua da, informazio eta iritzien trukerako gunea. Eredu liberal klasikoaren arabera, hedabideak hiritarrek beharrezkoa duten informazioaren bideratzaileak dira. Jakina da, gaur egun, informazioaren zirkulazioa hein handi batean egitura mediatikoek bideratzen dutela. Hedabideak tresna sozial eta politiko garrantzitsuak dira, beraz. Izan ere, gizarte garaikideetako baliabiderik handienetakoa bihurtzen ari denez (Melucci, 1996. 1999, 2001), informazioaren ekoizpenaren, metaketaren eta zirkulazioaren kontrola egungo bitzta publiko-politikoaren giltzarrietako bat bihurtu da.

Hala ere, egitura mediatikoak ez du informazio hutsa hedatzen, modu industria-lean ekoizturiko eta kontsumituriko ezagutza-forma berria baizik (Ortega, Humanes, 2000). Masa kulturaren testuinguruan ekoizten den ezagutza hori gizartearen sen oneko ezagutza bihurtzen da, alegia, gero eta gehiago egintza soziala azaltzen eta orientatzen duen ezagutza-mota bat, edo, nahiago bada, konformismoa eta adostasun soziala bultzatzen duen jakintza partekatua. Industria mediatikoak, informazio banatzaileak baino gehiago, kultura-industriak dira, errealitate sozialaren dimentsio sinbolikoaren eraikuntzan parte hartzen baitute. Horrela, zuzendu egiten dute hasieratik amaierara arte, hala sorkuntzan nola hedapenean, eduki sinbolikoen prozesua: besteak beste, ondasun sinbolikoen sorkuntza-arauak ezartzen dituzte, komunikazio kulturalaren bideen jabe dira eta euren publikoak (audientziak) moldatzeko gaitasuna agertzen dute. Hori dena, gainera, enpresa komertzialen logika monopolistak arautzen duen komunikazio-testuinguruan gertatzen da.

Hartara, “iritzi publikoa” deritzan hori ere, korporazio mediatikoen kuasimonopolioa dela esan dezakegu. Izan ere, masa-hedabideetan argitaratuta agertzen den iritziak iritzi publiko nagusiaren irudikapena eraikitzekeko elementu esanguratsuenak —indartsuenak, ikusgaitasun soziala lortzen duten bakarrak— eskaintzen dituzenez, iritzi publikoa hedabideetan adierazitakoarekin identifikatzen da sarritan. Horrela, enpresa mediatikoek —eta, horiekin batera, gizartean nagusi diren interes-taldeek— une bakoitzean iritzi nagusia edo legitimoa arautzen duen marko kognitiboa ezartzeko ahalmena daukate. Helburu hori betetzeko, besteak beste, gero eta kazetari, intelektual mediatiko eta iritzi-emaile gehiago biltzen dute euren baitan; horien guztien funtzioa, hain zuzen ere, enpresek ezarritako irizpideak

16. Honela dio E. Noelle-Neumann-ek: *La relación entre los medios de comunicación y la audiencia tiende a compararse con una conversación privada entre dos personas, una de las cuales dice algo y la otra queda reforzada o convertida. La influencia real de los medios es mucho más compleja, y muy diferente del modelo de conversación individual. W. Lippmann nos lo enseñó mostrando que los medios graban los estereotipos mediante innumerables repeticiones, y que éstos sirven de ladrillos del “mundo intermedio”, de la pseudorealidad que surge entre la gente y el mundo objetivo exterior. Esta es la consecuencia de la “función de agenda-setting” de Luhmann, la selección de lo que debe ser atendido por el público, de lo que debe considerarse urgente, de los asuntos que deben importar a todos. Todo esto lo deciden los medios.* (Noelle-Neumann, 1995)

sustatzea eta jorratzea izaten da. Gai-agendak eratuz, “arazo publikoak” definituz, iritzi legitimoak —hau da, “publikoak”— ezagutaraziz, politikoki pentsa daitekeenaren esparrua zehazten dute, eta errealtate sozialaren irudikapen “zuzenak” zedarritzen dituzte. Izan ere, iritzi publiko mediatikoaren ezkutuko funtzioa adostasuna eta kontrol soziala bermatzea da.¹⁷

Gizarteak ez dauka berezko “kontzientzia kolektiborik”; horregatik, gizartearen irudikapenetara jotzen da, aktore sozialak haiekin identifika daitezen. Hartara, gizartearen ezaugarri eta dimensio batzuk erakutsi egiten dira eta beste batzuk, aldiz, isildu. Gizarteari buruz egiten diren irudikapenak hautatzeko eta gizartekideei ikusgarri egiteko gaitasunak ezaugarritzen ditu bereziki masa-hedabideak gaur egun.¹⁸ “Ikusgaitasun mediatikoak” (Thompson, 1996, 1998) publikotasuna kontrolatzeko eta kudeatzeko moduan jartzen ditu hedabideak. Alde batetik, gizartearen irudikapen selektiboak eta hierarkizatuak eskaintzen dituzte (Jerez, 2001), bestetik, aktore sozialentzako esperientzia-markoak eratzen dituzte. Horrela, hedabideek gertakari askoren artean, apurka-apurka, erreferentziatzeko marko sozial bat osatzen duten jazoera jakinak aukeratzen dituzte; marko horietan kokatzen dituzte gero gizakiek euren esperientziak, esperientzia horiei esanahia egotziz. Modu horretan, eguneroko bizitza kolonizatzeak daukaten gaitasuna dela medio, irudikapen mediatiko selektiboak mapa kognitibo nagusi bilakatzen dira gizartekideentzat, hots, errealtate sozialari buruzko kontzeptuen eta ikusmoldeen lehentasunezko iturri.

Gaur egun zenbait auzi sozialek ez daukate ez ikusgaitasunik egitura mediatikoetan, ez lekurik esparru publiko ofizialean; gauza bera esan daiteke auzi horien definitzaile diren aktore sozialei buruz ere, hau da, publiko potentzialeari buruz. “Isiltasunaren kiribila” (Noelle-Neumann 1995) prozesu paralizatzailea da menpeko kontrapublikoentzat. Euren diskurtsoak eta egintza-proposamenak isildurik daude esparru publiko mediatikoetan. Diskurtso konplexuek, sistema politiko-ekonomikoarekin kritikoak direnek, gizarte-aldaketak aldarrikatzen dituztenek, gatazka pizteko gai direnek ez daukate oihartzunik esparru horretan. Are gehiago, publiko marjinalak bultzatutako gaiak edo gatazkak, mundu mediatikoan sarbidea lortuta ere, iritzi publiko nagusiaren baitan enmarkatu eta definitu izan ohi dira. Gatazka soziala errukian oinarrituriko egintzez estalita (Sampedro et al., 2002; Jerez, 2001), gatazka politikoa terrorismoaren kontzeptura murriztuta, emakumezkoen

17. Noelle-Neumann-en hitzetan: *El concepto de una opinión pública racionalmente configurada se basa en la idea de un ciudadano informado y capaz de formular argumentos razonables y de realizar juicios correctos (...)* La mayor parte de los autores que emplean este concepto reconocen que sólo un pequeño grupo de ciudadanos informados e interesados participa realmente en esas discusiones y juicios. (...) *El concepto de opinión pública como control social no tiene en cuenta la calidad de los argumentos. El factor decisivo es cuál de los dos bandos de una controversia tiene la fuerza suficiente como para amenazar al bando contrario con el aislamiento, el rechazo y el ostracismo (...)* La victoria o la derrota en el proceso de la opinión pública no depende de lo que esté bien o mal (...) *es un asunto de cohesión y de consenso de valores en una sociedad.* (Noelle-Neumann, 1995: 287-288)

18. Honela adierazten du Jerez-ek prozesua: *Esta construcción, con sus condicionamientos, refleja la realidad como un espejo deforme; amplía y agranda grotescamente determinadas partes, y achica y condensa otras hasta hacerlas invisibles. Determinados modelos de consumo y estilos de vida con sus valores (publicidad); determinados líderes sociales y políticos con sus referentes institucionales (informativos); determinadas pautas de comportamiento, estereotipos y actitudes (ficción) aparecen hasta la saciedad, mientras que otros, ninguneados de la agenda, parecen no existir.* (Jerez, 2001: 7).

aurkako bortizkeria “gertaeren” atalean sailkatuta edo manifestazioa ordena publikoaren arazo bihurtuta, horrela integratzen dira esparru publikoan gai gatazkatsuak definizio alternatiboz hustu ondoren.

Hain funtzio erabakigarriak betez gero, zaila da pentsatzea esparru mediatikoa botere politikoaren guneen zaintzatik at era daitekeenik, esparru guztiz autonomo gisa. Delako autonomia hori kolokan dago, alde batetik, esparru mediatikoa merkatulogikaren menpe dagoelako. Enpresa mediatikoak, gehien bat enpresa kapitalistak dira eta pribatutasunaren kontzeptutik abiatzen dira, sarritan euren zerbitzua “publiko” gisa ezaugarritzen duten arren. Baina, horren gainetik, irudikapen sozialak sortzeko eta zabaltzeko daukaten ahalmenak — sen oneko ezagutza hedatzeko gaitasunak —, mekanismo politiko izugarri inportante bilakatzen ditu adostasun sistemikoen eraikuntzan, beste hitz batzuetan esanda, iritzi publikoaren eraikuntzan. Ez baitugu pentsatu behar legitimitatea edo adostasuna, hau da, onespen egintza, Weber-ek uste zuen moduan, egintza guztiz libre eta kontziente denik. Gizartekideen baitan sustraiturik dauden egitura kognitiboetan —beraz, inkontzienteetan— oinarritzen da (Bourdieu, 1997) neurri handi batean. Eta interes politiko eta ekonomiko nagusiekin bat datozen adostasunak eraikitzekeo masa-hedabideak tresna garrantzitsua dira gure sistema sozialetan.

Jakina, masa-hedabideek ez dituzte erabat baztertu gizakien arteko komunikazio zuzenak eta interakzioak.¹⁹ Are gehiago, elkarriketazko guneen eta gune mediatikoen arteko uztardurak ere ezin dira ahaztu (Avritzer, 1999), eduki sinbolikoen izaerak ez baitu ezinbestez zehazten eduki horien interpretazioa eta erabilerak (Thompson, 1996, 1998). Beraz, mezu mediatikoak eztabaidagai dira aurrez aurreko interakzio sozialean, hots, mediatikoak ez diren gune publikoetan; dudarik gabe, erreflexitate-prozesuak sortzen dira komunikazio mediatikoaren inguruan. Hala ere, arretagunea mezuen harreran jartzen duten azterketek²⁰ komunikazio-prozesu mediatikoaren azken urratsera murrizten dute prozesuaren konplexotasuna. Mezu mediatikoen harrera, azterketon esanetan, prozesu sozial bereizgarria da eta, besteak beste, mezuak jasotzen dituzten gizakien eta taldeen ezaugarri sozialen menpe egoten da.

Baina, harrera-prozesuan ere, botere-egitura berriak, diskriminazio-forma berriak eta gatazka berriak eratzen dira gure gizarteetan, bereziki kodeen kontrolaren inguruan (Melucci, 1999). Horrela, dekodifikazioa ahalbidetzen duten kodeen jabe izatea eta irakurketa desberdinen posibilitatea ematen duen kultura-kapitala edukitzea funtsezkoak dira hiritar autonomoaren estatusa lortzeko, beraz, publiko gaituak osatzeko, XXI. mendeko sistema sozial garatuetan. Bestalde, dekodifikazio-gaitasuna edukitzeaz gain, kontrapubliko desberdinek ikusgai izateko eta ozen adierazteko aukera behar dute lortu, esparru publiko handietan benetako sarbidea izateko. Agerpen publiko-mediatiko horretan gertatzen den desjabetzea hiritarren bazterketarik handienetakoa izan ohi da (Martín Barbero, 2000), esparru

19. Iritziari dagokionez, esate baterako, iritzi publiko “erantsia” (iritzi nagusia, “gehiengoena”, hedabideek eta elite politikoek zabaltzen dutena) eta iritzi publiko “diskurtsiboa” (gizakien elkarriketan sortzen dena) bereizten dira. Ikus Sampedro, 2000 : 20.

20. Azken urteotan *Cultural Studies* izenpean ezagutzen den azterketa-lerroak mezu mediatikoen harreran eta hartzaileen interpretazio gaitasunean jarri ditu hedabideen ikuspegi ez “apokaliptikoen” oinarria.

publiko-mediatikoan sozialki existitzeko gaitasuna baitago jokoan, bai gizaki indibidualari dagokionez, baita kolektibitateari dagokionez ere. Horregatik, menpeko kontrapublikoek ezin dute eraginkortasunez jokatu ez badute esparru mediatikoan sarbiderik lortzen. Hori egin ezean, mikroesparru publiko zatikatueta jardutera mugatuta daude. Kontrapublikoen eginbideak, bada, maila desberdinetan kokatzen dira. Batetik, masa-komunikazioaren harrera kritikoa egitera beharturik daude, elkarrizketako interakzio-esparruak baliatuz, kultura politiko berria zabalduz, etab. Bestetik, komunikazio-estrategiak bideratu behar dituzte ahots alternatiboak masahedabide nagusietan ahalik eta modu egokienean isla daitezten.²¹ Horretarako, baina, komunikazio-esparru propioak eta alternatiboak ere landu behar dituzte —esparru mediatiko gisa eratuak—, esparru autonomoak eta konektatuak, gune publiko berriak artikulatzeaz gain, iritzi nagusiekiko lehian erreferente ezaguna izatea ahalbidetuko dietenak.

Agenda publikoak euren interesen arabera zabaltzea erronka zaila gertatzen da publikorik ahulentzat. Zailtasunak, gainera, dimento berriak hartzen ditu globalizazioaren garaian. Izan ere, globalizazioaren eragin handienetakoa komunikazioaren teknologien eremuan garatu da —kable eta satellite bidezko telebistak eta sare informatikoak dira horren lekuko—. Esparru publiko transnazionala osatu eta indartu egin da pixkanaka; haren baitan bizimodu-arau, kultura-balio eta kontsumo-eredu berberak birsortzen dira, eta mundua, gero eta gehiago, ikuspegi jakin batzuetatik interpretatzen da. Bestalde, globalizazio-prozesuek joera demokratizatzaile eta parte-hartzailea erakusten duten indar sozialak ere piztu dituzte. Hori dela eta, autore batzuek nazioarteko gizarte zibilaz (Lander, 1998) edo gizarte zibil globalaz (Vidal Beneyto, 2003) ere hitz egin dute. Esparru publiko transnasionalean zalantzarik gabeko eragina daukate publiko kritikok *altermundistek* iritzimailan. Ikusgaitasun publikoa, bederen, lortu dute hein batean. Haatik, globalizazio mediatiko-kulturala eta gizarte zibil globalaren sorrera-prozesua asimetrikoak dira erabat oraindik, joera demokratizatzaileek ez baitaukate gaitasun nahikorik esparru publiko transnazionalaren jaidura hegemonikoak indargabetzeko (Lander, 1998).

7. Partaidetzaren mugak. Iritzi publikoaren ahuldadea erabakigune politikoaren aurrean

Orain arte esan den moduan, esparru publikoaren ikusmolde hegemonikoa, tradizio liberalaren eraginez, esparru publiko eta pribatuaren arteko banaketa zurrunean eratu da. Luzaroan, esparru publikoak Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko erabateko banaketatik hartu du bere esanahia, bere adiera burgesean, esparru publikoa gizarte zibilaren ahotsa Estatuaren aurrean entzunarazteko gune gisa sortzen baita historian.

Ikuspegi liberalaren nagusitasuna nabarmen ageri da gizarte zibilaren partaidetzaren aldarrikapena egiten duten azterketa garaikide askotan. Adiera horretan, gizarte zibilaren kontzeptua Estatutik eta eremu ekonomikotik kanpo geratzen den elkarte-multzoa izendatzeko erabiltzen da. Ikuspegi horretatik sortzen den publikoaren eredia, ordea, nahiko mugaturik azaltzen da bere ahalmenetan. Egiatan, publiko horrek, Estatuaren partaide izan ezean, ezin du esparru publikoan

21. Zenbait esparrutan, esaterako GKEen baitan, premia horren gogoetari hasiera eman zaio. Ikus, adibidez, Erra, 2003.

eskumen ofizialez jabetuta jardun. Haren diskurtsoak, bada, ez ditu sortzen Estatuaren boterearen erabilera baimentzen duten erabaki subiranoak. Aitzitik, publikoak beste gune batzuetan, alegia, botereguneetan hartzen diren erabakien inguruko “iritzi” bat sortu ahal du, kritika bat, ezatabaida bat, ez besterik. Esparru publikoak, ikuspegi liberalean, ez ditu Estatuaren ezaugarriak bereganatzen; ez da Estatu, informalki eta era diskurtsiboan mobilizatzen den esparru bat baizik, Estatuaren kontrapisu legez ari dena. Murriztapen hori, bistan denez, publikotasunari egozten zaizkion funtzioei loturik dago; izan ere, esparru publikoaren estatuz kanpoko izaera horrek independentzia eta zilegitasun-kutsua eman nahi die bertan sortutako eztabaidari eta iritziari.

Legitimitatearen eremua babestu guran, ordea, ikusmolde burgesak aldarrikatzen duen gizarte zibil/Estatu banaketak hiritargoa “publiko ahula” (Fraser, 1997) izatera zigortzen du. Hartara, publikoek, kasurik onenean eta orain arte aipatu diren hertsapenak gaindituta ere, eztabaida burutu eta iritzia sor dezakete baina erabakietan esku hartu, ez. Ikusmolde liberalak, alde batetik, ez du proposatzen bi eremuak uztartzeko —gizartea eta Estatu, eguneroko bizitza eta politikagintza— bide instituzionalik. Demokrazia ordezkatzaillearen eredu normatiboak ez du aurrakusten publikoen partaidetza zuzenik erabaki politikoetan; botere-erakundeak gizartetik at daude. Bestetik, liberalismoak Merkatua analitikoki isolatu egiten du prozesu publikoetatik. Planteamendu horiek abiaburu hartuta, zein neurritan izan daitezke publiko ahulak hiritargo demokratikoa eraikitzeko bide egokiak? Nola gainditu pentsamendu liberalak ezarrirako mundu dikotomiko baztertzaila?

7. 1. Hirugarren Esparruaren barne-zatikapena

Azken urteotan, pentsamendu politiko kritikoak sustraitik astindu nahi izan du teoria politiko hegemonikoaren binomio ukiezina. Haren ikuspegiaren, demokrati-zazio errearen izenean gizartearen partaidetzaren auzia gero eta gehiago aurkeztu behar da, gaur egun lotura daukaten bi eremutan, hala Estatuaren eremu instituzionalean nola izaera publikoa daukan eremu sozialean, bien arteko elkar-guneak eratuz. Jarduera sozialeko eremua egintza politikorako eta autogestiorako egokia den esparru publiko “botereduna” egin nahi da era horretan. Hori proposatzean, Estatu eta gizartearen arteko dikotomia, hots, publikotasuna eta pribatutasunaren arteko mugak lausotzeko helburuarekin jokatzeko da (Bresser, Cunill, 1998). Alde batetik, beraz, ideal modura gizarteari erabakiak hartzeko boterea onetsi nahi zaio. Gizarte zibilaren eremu publikoa ez da gehiago iritzia sortzeko espazio bat izango, administrazio, erabaki eta boterearen gunea baizik. Bestetik, maila normatibo batean, uste da gizarteari eta partaidetzari irekirik dagoen politikagintza, hots, gizakien bizitza-premietatik eta taldeen nortasunaren sorguneetatik zuzenean egiten den politika baino ezin dela izan demokrazia erradikal baten oinarria.

Teoria kritikoaren partaidetza-proposamenak, adierazpen eta bertsio desberdinetan, indartsu agertzen dira gaur egungo azterketa politikoetan. Sistema politiko garaikideetan gertatzen diren eraldaketek, jakina, itzelezko eragina izan dute agenda teoriko horietan. Hirurogeiko hamarralditik aurrera sortzen diren gizarte-mugimenduen esperientzia erreferente garrantzitsua izan da interpretazio kritikoetan. Izan ere, mugimenduon jarduerak, gizartearen eta ustez pribatuak ziren gaien politizazioaren posibilitateak utzi ditu agerian, baita publiko alternatiboaren sorrera-ahalmenak ere. Horrekin batera, politika, gizartea eta kulturaren arteko bereizketa zurrunen arbitrariotasuna erakutsi dute mugimendu berriek. Hausnar-

ketak bide horretatik abiatuz eta gizartearen parte-hartze zuzena ahalbidetzen duen esparru publiko ez estatalaren ahalmenak baloratuz, gizartea eta Estatuaren arteko ebakiduran kokatzen den hirugarren gune bati buruzko kontzeptualizazioak ugaldu egin dira pentsamendu politiko kritikoaren barnean.

Bestalde, arestian esan den moduan, kapitalismoaren globalizazioak eta Ongizate-Estatuaren krisiak nabarmendu egin dituzte Estatuak eta Merkatuak erregulazio-eragile moduan dauzkaten eragozpenak (Pécaut, 2000; Bresser eta Cunill, 1998; Lander, 1998). Horren aurrean ere, Hirugarren Esparruaren, gizarte zibilaren edo esparru publiko ez-estatalaren eraketaren premia aldarrikatu da —ikuspegi teoriko desberdinetan— interbentzio sozial deszentralizatua bideratzeko formula bezala.

Gauzak horrela, gizarte-mugimenduek eta Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GKE) partaidetza politikorako gune publiko alternatibo gisa ekar zezaketen berrikuntzaren inguruko gogoeta franko burutu da azken hamarraldian. Interpretaziorik baikorrenetan, sistema demokratiko elitista eta ordezkatzaila gaindituz, paradigma politiko berriaren hasiera ahalbidetuko duten aitzindari gisa aurkeztu dira eragileok. Haatik, Ongizate-Estatuaren gainbeheraren karietara sortutako Hirugarren Esparru delako horren esperientziak behin baino gehiagotan, etsitzeko modukoak izan dira, bide horretan aldaketa-itxaropenak jarrita zeuzkaten askorentzat (Alonso, 2000; Revilla, 2002). Sektore hori, elkarte boluntarioz eta GKEz eratuta, nabarmen hazi da urteotan, baina pronostikoak ez dira erabat bete. Elkarrean funts ideologikoa hasierako gizarte-mugimenduen ideal utopikoetan oinarritu bazen ere, estatu postkeynesiarraren berregituraketaren elementu oinarritzakoa izan dira euren ibilbidean. Zehatzago esateko, Hirugarren Esparrua osatu eta eratu den neurrian errealtate konplexu bilakatu da, osagai desberdinekin eta indar kontraesankorrekin moldatua. Mutur batean, gizarte-mugimenduaren ereduari jarraitzen dioten elkarteak eta GKEak daude: horiek, euren behin-behinekotasunean, publiko kritikoaren eraketa ahalbidetu dezakete, partaidetza bultzatuz eta botere ekonomiko eta politikoaren egituren aurrean diskurtso kritikoak eginez. Beste muturrean, berriz, Estatuarekin eta administrazio publikoekin lankidetzan diharduten elkarte-ereduak kokatzen dira, sistema politiko instituzionalean, honezkero, aktore konbentzional gisa onartuak izan direnak. Azken horiek, anbiguotasunez betetako jarduna burutu dute. Partaidetzaren, elkartasunaren eta lankidetzaren diskurtsoaren izenean, ongizate sozialaren eta garapenaren arloetan aritu dira bereziki, lehenagoko politika sozialen zatiketa eta endekapena legitimatuz. Askotan, funts publikoak kudeatzeko toki bilakatu dira. Militantzia merkantilizatu ondoren (Dezalay, 2003) merkatu garailearen aurrean programa partzialak sustatzen dituzten eragile gisa jarduten dute. Ez dute izan, ordea, erabaki politikoen norabidea aldatzeko gaitasunik; are gutxiago, merkatuaren legeak eraldatzeko indarrik.²² Aitzitik, partaidetzaguneak izateko sortu ziren eta enpresa moduko kudeaketarako guneak izatera iritsi dira.

22. V. Sampedro-k azpimarratzen duenez, GKEak bereiziz joan dira, batzuek gatazkaren logikaren barruan jarduten duten bitartean, beste batzuk kudeatzaileak dira (Sampedro, 2002). Errok, berriz, kultura edo arrazionalitate “instrumentala” oinarritzat daukaten elkarteak eta mugimenduak bereizten ditu kultura “adierazkorra” daukatenengandik (Erro, 2003). Gizarte-mugimenduen eta beste ekimen sozial batzuen esparru soziala, hortaz, mundu konplexua eta barne-bereizketa handikoa bihurtu da; horregatik, ez dira egokiak orain urte batzuk egiten ziren azterketa erromantikoak eta sinpleak. Gizarteko esparru publikoetan sortzen diren ekimen guztiak ez dira, berez eta ezinbestean, kritikoak eta eraldatzaileak.

Hirugarren Esparrua errealtate heterogeneoa eta konplexua dela onartuta ere —kontzeptu horren barruan ezaugarri askotako mugimendu eta erakundeak biltzen baitira—, bertan nagusitu diren eragileak, ikusgaitasun publikoa eta eragin soziala erdietsi dutenak, aldaketa politikoa eta proiektu utopikoak baztertu dituztenak dira. Halatan, Hirugarren Esparruaren inguruan ez da eratu oraindik gizartearen partaidetza politikoaren bideak zabaltzeko eta publikotasun aktiboa suspertzeko marko indartsu eta eraginkorra. Bai, aldiz, sentimenduetatik, ez politikatik, abiatu hiritarren elkartasun-egintzetarako esparru bat, despolitizatu eta proiektu eraldatzailez desjabetua.²³ Beraz, gizarte-mugimenduek, elkarte boluntarioek eta GKEek zenbait arazoren inguruko esparru publikoa modu ikusgarrian zabaltzen badute ere, ez diote, orokorrean, erantzun egoki eta behin betikorik eman gizartearen eta sistema politikoaren artean eraiki beharreko lotunearen auziari. Publikoak, gaur egun ere, “ahulak” dira —Fraser-en terminologia erabiliz—, alegia, ez dute erabaki politikoetan esku hartzeko espaziorik zabaltzea lortu, ez bada neurri txikian, eta politika sozialen zein ekonomikoaren ildo nagusiak aldatzeko ezintasun nabarmena erakutsi dute.

Sistema politikoek, bestalde, zurruntasun handia agertu dute oraingoz Hirugarren Esparruko eragileen benetako partaidetza politikorako bide instituzionalak onartzeko orduan. Are gehiago esango genuke, eremu batzuetan aukera politikoaren egitura ireki bada ere —gehienetan, instituzio politiko lokalen barruan—, beste batzuetan publikoen iritzirako eta ekimenerako hertsirik geratu dira, berbarako, politika makroekonomikoen esparruan, “segurtasunaren”, “defentsaren” eta politika militarren arloan. (Capella, 1993). Horren adibiderik argiena da parlamentu-erakundeek, ustez demokrazia ordezkatzailleetako publiko “boteredunek”, sistema politikoetan jasan duten beheraldia. Izan ere, bizitza publikoaren korporatibizetza-prozesuen ondorioz, erabakiguneak —hainbat gai garrantzitsuren ingurukoak, bederen— parlamentuak utzi eta beste norabait aldatu dira, hain zuzen ere, erretorika liberalak aldarrikatu duen herri-soberaniaren ohiko gordetzailleekin zerikusirik ez daukaten guneetara. Erabakigune eta iritzigune publiko demokratikoen idealak, beraz, euren burutzapenetik urrun daude gaurko sistema politikoetan²⁴

23. Idea hori azpimarratzen du M. Revilla-k GKEei buruz egiten duen azterketan: *Esa definición absoluta del bien, la solidaridad como valor absoluto y el énfasis en la acción separan la acción de lecturas ideológicas de la realidad y de utopías de futuro y se colocan en el realismo total. Se podría decir que lo que importa en este ámbito es lo que realmente se puede hacer aquí y ahora, lo que significa el abandono de los planteamientos de cambio a largo plazo para enfocar las posibles acciones como resultados inmediatos. (...) La posibilidad de “hacer algo” (...) anula la sensación de impotencia de los ciudadanos. (...) Lo que hay que dejar claro es que no es una forma de remediar ese alejamiento produciendo nuevos contenidos de lo político, sino que es el camino para la consolidación de dos espacios separados: lo político y lo no político. (...) Cuanto más niegan la política las ONG y más reafirman su capacidad de “hacer algo”, más contribuyen a su propia legitimidad como actor reforzando la separación entre lo político y lo no político.* (Revilla, 2002 : 57, 58)

24. *Las tendencias indiscutibles hacia el intervencionismo estatal y el corporativismo han reducido ciertamente la importancia política de los terrenos de la comunicación pública racional. El punto no es que lo privado y lo público estén tan fundidos que no haya entre ellos tal cosa como un espacio del que se pueda decir que desaparece realmente. Lo que ocurre es que, en la medida en que las políticas económica, cultural, familiar y de bienestar devienen provincias de la administración estatal y de grandes asociaciones privadas que trabajan sobre ellas en formas específicas de interacción no públicas, en esa medida, decíamos, la importancia de las discusiones públicas decae. (...) Las demandas de democratización y conocimiento público de los procesos de negociación, así como la auto-organización de iniciativas y movimientos cívicos, tienen éxito precisamente ahí donde el neo-corporativismo ha cobrado mayor fuerza.* (Arato eta Cohen, 1999 : 37)

7.2. Amaitzeko

Pentsamendu politiko kritikoak ulertu duen modura, Hirugarren Esparruaren kontzeptuak beste proposamen batzuetan gizarte zibilaren kontzeptuak edo esparru publiko bakar eta biltzailearenak izan zuen akats berbera erakusten du. Hartara, uste dugu gizarte zibilaren eta esparru publikoaren potentzialtasun demokratikoen eta parte-hartzaileen goraipamenaren diskurtsoak ez gaituela itsutu behar, prozesu sozialei buruzko azterketa arretatsua egitetik desbideratuz. Gaur egun ezin da jokatu subjektu eraldatzaile bateratu bat egongo balitz moduan. Kontrapubliko alternatiboak izan daitezkeenak interes- eta jarduera-hobi askotan sortu eta aritzen dira, modu zatikatuan zenbait esparrutan, modu bateratuagoan beste zenbait interesguneren inguruan. Gure iritziz, Hirugarren Esparruari dagokionez, diskurtso kritikoez errealtatean tentsioen menpe zatiturik eta desberdindurik dagoena, teorikoki, batasunaren irudikapenaren bitartez interpretatzeko joera agertzen dute, behin baino gehiagotan. Hala eta guztiz, ezin zaio ukatu tradizio kritikoari egindako ekarpen garrantzitsua, gaur egungo sistema sozial eta politikoen gatazka nagusiak agerian uzteko bertutea izan baitu: gaurko gizarteetako egiturazko heterogeneotasuna, konpondu gabeko integrazio normatiboaren ausia, hiritar-tasuna sistema politikoarekin lotzeko arazoak eta subjektu demokratiko eta parte-hartzailearen gabezia, besteak beste.

Ikusienez, oraindik publiko aktibo eta autonomoen garapena egundoko desafioa da indar sozial eraldatzaileentzat, egiturazko eragozpen handiak gainditu behar baitira helburu hori erdiesteko, bai politikoak, bai kulturalak baita ekonomikoak ere. Horietako batzuk aipatu dira lan honetan zehar; beste batzuk, dudarik gabe, azterketa sakonagoen arreta mereziko dute: Estatuek eta nazioarteko erakundeek esparru publikoei eta han diharduten erakundeei jartzen dizkieten baldintzak eta erakundeen bitartekaritzaren eragina esparru publikoetan, esaterako. Izan ere, publikotasunaren gaiak interesgune eta ikuspegi askotatik aztertze moduko aukerak ematen ditu. Edozein abiapuntu hartuta, gizarte-zientziek tresna egokiak landu behar dituzte gizarte-errealitatea historizatze, baita errealtate hori aztertze erabiltzen diren kontzeptuei logika erreflexibo bera aplikatzeko ere. Publikotasunaren inguruko gogoeta ere, testuinguru horretan kokatu behar da. Publikotasuna aztertze baliatzen ditugun ohiko kontzeptuei eta euren adierei arretaz behatu behar zaie. Azken batean, desnaturalizazio-lan horrek baino ez du ahalbidetzen, aldi berean kontzeptuen ahalmenak eta kontzeptuek izendatzen duten errealtatearen inplikazioak sakonago ulertzea.

Bibliografia

- Aguila, R. del (1997): "La Política : el Poder y la Legitimidad", in R. del Aguila (arg.), *Manual de Ciencia Política*. Trotta. Madril.
- Alonso, L. E. (2000): " Las Transformaciones del Estado de Bienestar : Participación Social, Sociedad Civil y Ciudadanía", in J. A. Garde (arg.) : *Políticas Sociales y Estado de Bienestar en España. Informe 2000*. Fundación Hogar del Empleado. Madril.
- Arato, A., Cohen, J. (1999): "Esfera Pública y Sociedad Civil". *Metapolítica* 3, (9), 37-55
- Aristoteles (1986): *Política*. Alianza. Madril.
- Avritzer, L. (1999): "Diálogo y Reflexividad : acerca de la Relación entre Esfera Pública y Medios de Comunicación". *Metapolítica*, 3, (9), 79-94.

- Baker, K. M. (1992): "Defining the Public Sphere in Eighteenth-Century France : Variations on a Theme by Habermas" in C. Calhoun (arg.), 181-211.
- Béjar, H. (2000): *El Corazón de la República. Avatares de la Virtud Política*. Paidós. Barcelona.
- Benhabib, S. (1992): "Models of Public Space : Hanna Arendt, the Liberal Tradition and Jurgen Habermas", in C. Calhoun (arg.), 73-98.
- Bourdieu, P. (1997): *Razones Prácticas. Sobre la Teoría de la Acción*. Anagrama. Barcelona.
- , (1998): *La Distinción. Criterio y Bases Sociales del Gusto*. Taurus. Madrid.
- , (1999): *Meditaciones Pascalianas*. Anagrama. Barcelona.
- , (2001): *Poder, Derecho y Clases Sociales*. Desclée de Brouwer. Bilbao.
- Bresser, L. C., Cunill, N. (1998): "Entre el Estado y el Mercado : lo Público no Estatal" in L. C. Bresser, N. Cunill (arg.), *Lo Público no Estatal en la Reforma del Estado*. Paidós. Barcelona.
- Calhoun, C. (arg.) (1992): *Habermas and the Public Sphere*. MIT Press. Cambridge.
- Capella, J. R. (1993): "Las Transformaciones del Estado Contemporáneo" in J. Apalategi, X. Palacios (arg.), *Poder y Democracia. Los Nacionalismos en la Crisis del Estado de Bienestar*. Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados. Gasteiz, 19-40.
- Cohen, J., Arato, A. (2000): *Sociedad Civil y Teoría Política*. FCE. México.
- Champagne, P. (1990): *Faire l'Opinion. Le Nouveau Jeu Politique*. Minuit. Paris.
- Dezalay, Y. (2003): "Las ONG y la Dominación Simbólica", in J. Vidal Beneyto (arg.), 347-371.
- Eley, G. (1992): "Nations, Publics, and Political Cultures : Placing Habermas in the Nineteenth Century" in G. Calhoun (arg.), 289-339.
- Erro, J. (2003): *Gizarte Komunikazioaren Arloko Prozesuak Aurkitu eta Eratu. GGKEetan Komunikazio Politikak, Estrategiak eta Egiturak Diseinatzeko Zenbait Ideia*. Hegoa. Bilbao.
- Eyerman, R., Jamison, A. (1991): *Social Movements. A Cognitive Approach*. The Pennsylvania State University Press. Pennsylvania.
- Fraser, N. (1997): "Rethinking the Public Sphere. A Contribution to the Critique of Actually Existing Democracy" in N. Fraser, *Justice Interruptus. Critical Reflections on the 'Postsocialist' Condition*. Routledge. New York.
- Habermas J. (1981) : *Historia y Crítica de la Opinión Pública. La transformación Estructural de la Esfera Pública*. Gustavo Gili. Barcelona.
- , (1992): "Further Reflections on the Public Sphere" in C. Calhoun, 421-461.
- Herbst, S. (1994): *Politics at the Margin. Historical Studies of Public Expression Outside the Mainstream*. Cambridge University Press. New York.
- , (1996): "Public Expression Outside the Mainstream". *The Annals of the American Academy of Political and Social Science* **546**, 120-131.
- Innerarity, D. (2002): *La Transformación de la Política*. Península. Barcelona.
- Jerez, A. (2001): *Comunicación y Ciudadanía. La Visibilidad de los Problemas Sociales en los Medios de Comunicación como Cuestión Democrática*. Cáritas. Madrid.
- Keane, J. (1984): *Public Life and Late Capitalism : Toward a Theory of Democracy*. Cambridge University Press. Cambridge.
- , (1991): *The Media and Democracy*. Polity Press. Cambridge.
- , (1997): "Transformaciones Estructurales de la Esfera Pública". *Estudios Sociológicos* **15**, **43**. UNAM. México, 47-77.
- Lander, E. (1998): "Límites Actuales del Potencial Democratizador de la Esfera Pública no Estatal" in L. C. Bresser, N. Cunill (arg.), *Lo Público no Estatal en la Reforma del Estado*. Paidós. CLAD. Buenos Aires, 447-486.

- Landes, J. (1988): *Women and the Public Sphere in the Age of the French Revolution*. Cornell University Press. Ithaca.
- Martín-Barbero, J. (2000): "Transformaciones Comunicativas y Tecnológicas de lo Público". V Encuentro Iberoamericano del Tercer Sector. Cartagena. Kolombia.
- Melucci, A. (1996): *Challenging Codes : Collective Action in the Information Age*. Cambridge University Press. Cambridge.
- , (1999): "Esfera Pública y Democracia en la Era de la Información". *Metapolítica*, 3, (9). México. 57-67.
- , (2001): *Vivencia y Convivencia. Teoría Social para una Era de la Información*. Trotta. Madrid.
- Mouffe, Ch. (1999): *El Retorno de lo Político. Comunidad, Ciudadanía, Pluralismo, Democracia Radical*. Paidós. Barcelona.
- Noelle-Neumann, E. (1995): *La Espiral del Silencio. Opinión Pública : Nuestra Piel Social*. Paidós. Barcelona.
- Ortega, F; Humanes, M. L. (2000): *Algo más que Periodistas. Sociología de una Profesión*. Ariel. Barcelona.
- Pécaut, D. (2000): "Crisis y Construcción de lo Público". V Encuentro Iberoamericano del Tercer Sector. Cartagena. Kolombia.
- Price, V. (1994): *La Opinión Pública. Esfera Pública y Comunicación*. Paidós. Barcelona.
- Rabotnikof, N. (1997): "El Espacio Público : Caracterizaciones Teóricas y Expectativas Políticas" in F. Quesada (arg.): *Filosofía Política I. Ideas Políticas y Movimientos Sociales*. Trotta. Madrid.
- Revilla, M. (2002): "Zona Peatonal. Las ONG como Mecanismos de Participación Política" in M. Revilla (arg.), 15-65.
- , (arg.) (2002): *Las ONG y la Política. Detalles de una Relación*. Istmo. Madrid.
- Ryan, M.P. (1992): "Gender and Public Acces : Women's Politics in Nineteenth-Century America" in C. Calhoun (arg.), 259-288.
- Sampedro, V. (2000): *Opinión Pública y Democracia Deliberativa*. Istmo. Madrid.
- Sampedro, V. *et al.* (2002): "ONG, Medios de Comunicación y Visibilidad Pública. La Ciudadanía ante la Mediatización de los Mensajes Sociales", in M. Revilla (arg.), *Las ONG y la Política*, 251-285.
- Scott, J.C. (2003): *Los Dominados y el Arte de la Resistencia*. Txalaparta. Tafalla.
- Sintomer, Y. (1998): "Sociologie de l'Espace Public et Corporatisme de l'Universel". *L'Homme et la Société* **130**, 7-19.
- Somers, M. (1997a): "¿Qué hay de Político o de Cultural en la Cultura Política y en la Esfera Pública? Hacia una Sociología Histórica de la Formación de Conceptos". *Zona Abierta* **77/78**, 31-94.
- , (1997b): "Narrando y Naturalizando la Sociedad Civil y la teoría de la Ciudadanía : el Lugar de la Cultura Política y de la esfera Pública. *Zona Abierta* **77/78**, 255-337.
- , (1999): "La Ciudadanía y el Lugar de la Esfera Pública : un Enfoque Histórico" in S. García, S. Lukes : *Ciudadanía, Justicia Social, Identidad y Participación*. Siglo XXI. Madrid, 217-234.
- Thompson, J. B. (1996): "La Teoría de la Esfera Pública". *Voces y Culturas* **10**, Barcelona.
- , (1998): *Los Media y la Modernidad*. Paidós. Barcelona.
- Vallespin, F. (1996): "Sociedad Civil y Crisis Política". *Isegoría* **13**, 39-58.
- Vidal Beneyto, J. (2003): "La Dimensión Pública de la Sociedad Civil", in J. Vidal Beneyto (arg.), *Hacia una Sociedad Civil Global*. Taurus. Madrid, 15-65.